

TOKIKOM

2017ko otsaila | 167. zenbakia

aike! !

txorierriko hizkaria



Lara Izagirre, zinemagilea

**Ixiltasunaren
narratzailea**



berbalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ.



EMAN IZENA!

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,
jende berria ezagutzeko,
ilobarekin hitz egiteko.
Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.
Nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Irailean eta urrian

Kontaktua: BERBALAGUN | 635.75.35.95 | txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak



-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak / albisteak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Negu García Ayarza, mekanikaria
-  **12** Gurean izan da... The Upper Room taldea
-  **14** Gazteak eta... Jon Inza, mekanikaria
-  **16** Galdeketa, Larrabetzun
-  **18** Lara Izagirre, zinemagilea
-  **22** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **25** Inauteriak, Txorierrin
-  **26** Gudari baten gorpua, Larrabetzun
-  **28** Txorierrri ezagutu... Britainar hilerria, Loion
-  **30** Gure musika... Taberna Ibiltariaren azken lana
-  **32** Txorierritartuak... Pakistango ostalariak
-  **34** Teknologia... Partekatzeko plataformak
-  **35** Aikorrizketa... Gernikako arbola...
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda





**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



**Txorierriko
Mankomunitatea**

diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekilili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

Erredakzio taldea: Maite Leckerika, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Erika Pereda, Udane Goikoetxea, Itsasne Zubiri, Zuriñe Alboitz, Idoia Andrés, Oihana Astobieta, Ana Apika, Aner Mentxaka eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



ERIKA PEREDA
(Kazetaria)

Orain dela egun batzuk, parkean nengoela, bi mutil, zortzi-hamar urte ingurukoak, borrokan hasi ziren. Istorioaren amaiera imajina dezakezue: bata, garaile; eta bestea, amorrus eta inpotentziaz beterik. Horietako baten ama eta bestearen amona mutikoekin hitz egiten hasi ziren: ezin dela borroketan ibili, ez dagoela ondo, hurrengo batean ez errepi-

Maitasuna

katzeko... Eta elkarri barkamena eskatzeko. Umeek, batak besteari, barkamena eskatu zioten, baina gauza mekaniko bat izango balitz bezala: esan behar dut edo, hobeto esanda, behartzen naute "barkatu" esatera, eta hala egiten dut. Hori ikusita, ezin izan nuen aguantatu, gogoia ezin ekidin, eta kontu horretan sartu nintzen.

–Bihotz-bihotzez eskatu diozu barkamena? –galdetu nien–. Ez, ezta? Baina, zergatik? Ez da zure laguna? Eta ez duzu maite?–. Eta parkeko ume guztiak (dagoeneko asuntoa pelikula baten azken eszenak baino interesgarriago bihurtu zen) barrezka hasi ziren.

–Zergatik?– berriro galdetu nuen. Eta erantzuna harrigarria izan zen.

–Zelan maite dugula? Maitatu lagun bat?!

Ba bai, maitatu. Maitatzen ditugulako gure bikotekidea, gurasoak, anai-arre-

bak... eta baita gure lagunak ere. Maitatzen ditugulako gure seme-alabak, aita-amamak, gure txakurra eta dordoka, eta, zergatik ez, gure auzokide "gorrotatuena" (berak ere bere garrantzia dauka gure bizitzan). Eta, hain zuzen ere, maitasunez inguratuta egon arren, maitasuna ez omen dago gure hezkuntzan; etxean ematen dugun hezkuntzan, ezta eskoletan eskaintzen duten horretan ere.

Sentimenduei buruz hitz egitea zaila da, oso zaila esango nuke, eta askoz gehiago sentimendu positiboak ez diren-an. Baina bizitzari aurre egiteko beharrezkoak dira. Oso ondo dago gustatzen ez zaiguna identifikatzea, baina askoz hobeto dago poztasuna, ausardia, itxaropena, ametsak, enpatia, berdintasuna edota maitasuna adierazten jakitea. Gure lagunak ere maitatzen dugulako.

hAMAsays

Arrieta, Bilbao, Agirre, Arriaga, Bilbao, Larrondo, Lopategi, Meabe, Zugazaga, Elordui, Zalbidea, Uriarte, Arrola, Zabala, Arteaga, Artetxe. Ama said. Batzuk zortzi abizen darabilen euskalduntasuna adierazoteko, guk txikerretarik dakiguz hamasei. *¿Cuántos? ¿Hamaseis?* Itauntzen dau euskara ikasten dabilen "castellanoak" harriduraz. Ez neukan ikusteko ezelako gogorik. Oraintsu suertatu jat telebistan *Ocho apellidos vascos* filmea. Espektatiba lar izatea edo umore falta -ez dot uste- izango zan ez gustatzeko arrazoia. Beharbada, nahikotuta gaukazalako euskalduntasanaren gaiak, eta bere in-



UDANE GOIKOETXEA
(Kazetaria eta irakaslea)

guruan sortu eta eregiten diran topiko tipikoak. Bai, makina bat izan dira barreka puztu diranak. Halandabe, ez dakit daukan ospea merezi dauen.

Hamasei edo zortzi abizen euskaldun? Kiloko txuletea jatea? Flekilloa? Edo-eta euskara jakitea eta erabiltea? Euskara sortu eta bersortzea? Zer da, bada, praktikan, egunerokoan, euskaldun izatea? Kanpotik hori jakitea ez ete da ba gatxa?

Han, urrunean, entzuten dira Ama Say musika talde bizkaitarraren letrak. Hauxe dinoe: *Suck on! There's nothing going on*, beste kezka batzuk dituzu entrenitzeko... zure bizitza lapurtuta, haren eskuetan dago noz amaitzen dan dana. *Ah! It's evolution; ez gel-ditu!*

Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Taller, 5
48170 Zamudio
94 651 05 81

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Elkarrekin ikusgai egiten gara

Gaur egun emakumeok hitza dugu, agerian gaude, baina ez gara ikusgai. Idatzi, margotu, konposatu, artea sortzen dugu, etxeko eta zaintza lanak egiten ditugu, ikertzaileak gara, kirol txapelketetan eta hainbat jardueratan hartzen dugu parte... baina ez gara ikusgai. Biluzten gaituztenean eta hiltzen gaituztenean, orduan bai, orduan bai ikusgarriak, eta guk horrela nahi ez.

Gure izenak isildu egiten dira; eta ez badira esaten ez gara ezer. Emakumeon presentzia onartuta badago ere, gizarte patriarkalak sortutako kanoenen eta ereduaren barruan gaude. Horregatik izen horiek guztiak esan eta idatzi egin behar dira, ikusgarri izateko: Angela, Martina, Bibiana, Karmen, Genara, Mari, Felisa, Felipa, Bego, Marisa, Josune, Josune, Alaitz, Ainara, Olga, Ainere, Idoia, Izarne, Ikerne, Miren, Eloisa, Ainhoa, Karmele, Marije, Marijo, Rocio, Zorione, Ines, Fatima, Klaudia, Jenifer, Rim,



Arwua, Klara, Maider, Garazi, Kattali, Katixa, Esti, Ana, Ane, Amaia, Alexandra, Etorne, Eneida, Isabel, Aintzane... (munduko emakumeen izen oro).

Baina orain, martxoaren 8an, eta sikiera egun batez, komunikabideak beteko ditugunez, aprobetxa dezagun gizonen eta emakumeen arteko benetako desberdintasunak deseraikitzen, eta benetako neurriak hartzen desberdintasun horiek desager daitezten.

Eta horretarako, emakumei buruz hitz egin behar da; izendatu egin behar gaituzte, gure lanak eta lorpenak jaso behar dira. Hau da, oroimen kolektiboaren partaide izan bagara eta aipatuak izan behar gara. Ikusgai.

Bizitza maite dugulako eta bizirik nahi dugulako. Gora munduko emakumeak.

Moreak, Lezamako emakumeen taldea

Bizkaiko Eskolarteko txapelkunak

Aimar Busket lezamarra eta Adrian U. Gordon sondikoztarrak Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuten otsailaren 18an, "Umeak A" kimu kategorian. Goizeko 10:00etan hasi zen finala eta kategoria ezberdinetako 12 partida jokatu ziren 24 bikoteen artean. Final erdia Zaratamoren aurka Zornotzan jokatu ostean, finala Barakaldoko frontoian jokatu zuten, Ortuellaren aurka. Hiru urte daramatzate jokoan Aimar eta Adrianek, eta bikoteak ez du partidarik galdu sasoi honetan: "Zaratamoren aurka jokaturako partida gogorra izan bazen ere, haurrek aurrera egitea lortu zuten eta pozik bezain arto daude", adierazi dute Lezamako Pilota Elkartetik.

Sondikak horniduren gastua % 6 gutxitu du

Sondikak Udal eraikuntzen gastua % 6 gutxitu zuen 2016an, aurreko urtearekin alderatuz. 7.500 euro baino gehiago aurreztu dira. 2015ean 121.400 euro gastatu baziren, 2016an 113.900 ordaindu ziren. Haurreskola alde-raketatik kanpo geratu da, 2015eko irailean martxan jarri zelako.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostirala:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI
CAFE-BAR

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatuan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

ERREKA
ONDO
JATEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 28 29



Hiru txorierritar, Emakume Pilotarien II. Topaketan

Jone Goiri, Ane Baraiazarra eta Amaier Holgado txorierritarrak Laboral Kutxa Emakume Master Cup 2017ko final laurdenetara klasifikatu ziren Emakume Pilotarien II. Topaketan, Larrabatzun. Saio hone-tan hurrengo bikoteak izan ziren garaileak: Paula Iturbide-Amaiur Holgado, A multzoan; Jone Goiri-Ane Baraiazarra, B multzoan; Lucía Fonseca-Iratxe Ibarra, D multzoan; eta Paula Fuentes-Marian Trigo, E multzoan.

Larunbat eta igandean 500 lagun inguru izan ziren herrian. Larunbatean Txoko Ona Emakume Elkarteak askotariko ekitaldiak anto-latu zituen egun osoan zehar. Igandean, 200 pertsona inguru izan ziren pilota partidak ikusten. 24 pilo-tari eta 12 bikote izan ziren jokoan: nafar bat, zazpi katalan, valentziar bi, granadar bat, asturiar bat eta hamai-ka bizkaitar izan ziren lehian.

Urtarrilean eta otsailean zehar bestelako kanporaketak egingo dira. Finala martxoaren 5ean izango da, Zornotzako Udal Pilotalekuan, 12:00etan, Emakume Langilearen Egunaren astean.

Sondikako aisia, gazteen esku

Sondikako Udalak hirugarren aldiz egin du Gazte Sondika 2020 programa, gazteei eta euren familiei euren gustuko-ak diren inizatibak sortzeko aukera ematen diena. Egun batzuk lehenago Udaleko kultura teknikaria, Mankomunitateko gazteen informazioko arduraduna, tokian tokiko erakundetako ordezkariak eta proiektuaren kudeatzaileak batu ziren, ekimena bideratzearen: "20 urteko Gaztetxea daukagu", adierazi zuen Xabier Zubiaur alkateak, herriaren izaera berri-tzaileaz aritzean.

Otsailaren 9an gurasoekin egin zen bilera. Bertan, Gaztetxearen erabileraz aritu ziren, aisialdira soilik bideratu behar-reen, hezkuntzan inpaktua izan dezan, solidaritatea eta elkarbizitza bezalako ba-loreak eskainiz.

"2020. urtea proposatu da hautes-kundeek ostean izango delako, eta beraz horrek ez du inolako eraginik izango, eta horrez gain denbora tartea izango da proposaturiko ideiak martxan jartzeko", azaldu du herriko alkateak. Proposaturiko ideien artean gaztetxeko erabiltzaileen arteko bidaia izan zen, bertako zenbait gaztek elkarbizitzaren balorea positiboa dela ikusten dutelako. Beste ideia bat au-rriztearena eta udan bidaia bat antola-tzearena izan zen. Horrez gain, gaztetxe-aren giltzak mantentzearen ardura gaztee-na eta euren gurasoena izatea da: "Nahiz eta bertako ateak irekitzera heldu bate-kin joan behar garen". Beste gazte batzuk gaztetxean bideokontsola ezartzea edota Paintball saioa egitearen aukera begi onekin ikusi zuten.



Altzari
EBANISTERIA - GARPINTERIA, S.L.

Zuzeneko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEK
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tifnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Tel./faxa: 94 452 06 64
Tomelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

**Restaurante
JANAK JATETXEN**

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregean ikus gortu

ABIOLKETA ERITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALEEROKETAK
SEGUROS BELLAGOEN AGENZIA

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio de Orjina

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



Magalartekoek *leup!* sortu dute

Lezamako Magalarte ardotegiko Iñaki eta Andoni Aretxabaletak *leup!* txakolina sortu dute. Txorierriko txakolin honen laugarren eta bosgarren generaziokoek 2016ko Santo Tomasen aurkeztu zuten *leup!* baita txakolin zuriaren kategoriako saria irabazi ere.

Iñaki Aretxabaletak txakolinarekin duen kontaktua Zamudion hasi zen, Magalarte baserrian. Urteak pasata, Lezama joan zen bizitzera eta bertan txakolina egitera. Gaur egun 50.000 litro txakolin produzitzen dituzte urtero, barrikan fermentaturikoa kontuan izan gabe. Iñakiren semeak, Andonik, 25 urte ditu eta nekazaritza ingeniari eta enologia ikasi du, eta familiaren usadioarekin aurrera jarraitzeko gogotsu dabil.



Lanbideko puntu mugikorra, Sondikan

2017ko abenduaren 21a arte Sondikak Lanbideko puntu mugikorra izango du Goiri kalean. 226 auzotar langabetuei zuzenduta, arreta tokia bi astetik behin izango da, oste-gunetan, Goiri Erdikoa kalean, 09:00etatik 13:00etara. Bertan, ordenagailu bi daude, eurekin edozein bulegotan egin daitezke eragiketak, DSBE laguntza eskatzea izan ezik. Martxoaren kasuan, hilaren 2, 16 eta 30ean izango da.

32 zakarrontzi eraberritu dituzte Larrabetzun

Larrabetzuko udalak 32 zakarrontzi berreskuratu ditu birziklapena bultzatzeko. Horretarako, edukiontzia konpondu, margoztu, eta kaleetan jarri dira berriro. Gainera, herriko zortzi tokitan ontziak multzoka jarri doguz: papera, organikoa, ontziak eta errefuxa banaka biltzeko. "Ekintza honen asmoa birziklapena bultzatu eta gure kaleetan berziklapenaren aldeko pedagogia egitea da", azaldu du Iñigo Gaztelu alkateak.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Peluleria
Estetika

94 455 81 44

Anguluri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia



FRUTAK **BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - beheko Larrabetzu | 94 455 89 19




**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

249 bikote, Derioko Bullpapel adin txikikoen proban

la 500 jokalarik hartu zuten parte otsailaren hasieran Bullpapel adin txikikoen lehen proban, Derion. Bai faboritoek, bai lehen aldiz jokatzeko zuten askok ikuskizuna eskaini zuten. Irabazleei dagokienez horra hor txapeldunen zerrenda, kategoria ezberdinetan sailkatuta: Benjamin mailako mutilak, F. González Rodríguez-C. Cabeza Teres; Benjamin mailako neskek, A. Perez Ortiz-I. Dionisio Laureano; Kimu mailako mutilak, R. Bartolomé Bachiller-A. Fernández Lancha; Kimu mailako neskek, M. López Blas-P. Arous López; Haurrak, mutilen A taldea, P. Hernández Álvarez-B. Vera López; Haurrak, mutilen B taldea; J. Escolar López-A. Rodríguez Martínez; Haurrak, neskek, A. Perez Corral-E. Estrada Sastre; Kadete mailako mutilak, E. Pérez Cabeza-I. Amondarain González; Kadete mailako neskek, A. Colinas Castro-C. González Cidoncha; Junior mailako mutilak, M. García Ruiz-I. Pozo Carballo; Junior mailako neskek, M. Caballero Sancho -A. García Román. Sari banaketan Alfredo Garbisu egon zen, Espainiako Padel Federazioko presidentea, Bizkaiko Padel Federazioko Julio Alegría presidentearekin eta Padel Bizkaiko presidentea, Jorge Peñínekin.



LABUR BIRA 2017KO ZINTAK, SONDIKAN.– Martxoaren 11n, Topagunea eta Altzora elkartearen laguntzarekin antolatutako Euskarazko Film Laburren Zirkuituko laburmetriak proiektatuko dira Sondikako Kultur Etxean, 19:30ean. Guztira 18 zinta proiektatuko dira zinema aretoan: Oier Fuentesen *Azken Saskia*, Ageda Kopla Taldearen *Beti Bezperako Koplak*, Alejandro Díaz Castañoren *Ihesa*, Ibon Izaren *Elemarrak*, Eki Pagoagaren *Jalgi*, UDA Films-en *280°*, EUSPOT lehiaketako *11 spot*, eta Kepa Sojoren *Hileta*.

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uriben 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrekontua doan
–Especialitatea:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ARINKA
KASTEGIA
Goiko kalea, 8 DERIO

LH - DBH - BATX
INGELES - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopisenda.com arinkakastegia.blogspot.com

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Lan sarbide ikastaroak, Sondikan

Egaz Txorierrik 110 langabetu bizkaitarrentzako lan sarbide altuko sei ikastaro eskainiko ditu Sondikan. Bizkaiko Foru Diputazioak % 100ean babesturiko ikastaro hauek Lanbiden izena emanda duten bertako langabetuei zuzenduta daude. Interesdunek momentu honetan izena eman dezakete Sondikako Egaz Txorierrin. Bertara jotzean, langabetuak betekizun guztiak dituela frogatu beharko du. Horrez gain, beharrezko titulazioa, lan-bizitza eta DSBE edota desgaitasun-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, izatekotan.

Profil anitzak

Ikastaro bakoitza profil zehatz bati zuzendurikoa da: Konpetentzia komertzialak ikastaroa, 65 ordukoa, urtarrilaren 30etik otsailaren 31ra ematen ari da eta maiatzaren 31tik ekainaren 16ra emango da berriro, denboraldi luzeko langabe-

tuentzat, 45 urte baino gorakoentzat, DSBE laguntza jasotzen dituztenentzat eta babesgabeko taldeentzat.

Menpeko Pertsonen Arreta Soziosanitario ikastaroak antzeko ezaugarriak dauzka, baina 370 ordukoa izango da eta otsailaren 17tik maiatzaren 31ra egingo da. Gainera, praktikak izango ditu eta profesionaltasun ziurtagiria izango du.

Goi edo erdi mailako Heziketa Profesionaleko 30 urtera arteko gazteek Marketing Digitaleko Erremintak ikastaroa egin ahal izango dute. Berau egin ahal izateko hiru deialdi izango dira: otsailean, martxoan eta maiatzean, 65 ordukoa. Bestalde, Uretako Sorospen ikastaroa egin ahal izango dute, 290 ordukoa, otsailetik maiatzera; eta Komertzio Dendariarena, 230 ordukoa, martxotik maiatzera. Azken bi ikastaroek praktikak eta profesionaltasun ziurtagiria izango dituzte.

Gym Berdea, Larrabetzun

Otsailaren 15ean Gym Berdeari hasiera eman zion Larrabetzuko Udalak bizitza sedentarioari aurre egiteko helburuarekin. Honako jarduerak jorratzen ari dira bertan: ekolorazaintza ikasteko tailerra, osasun zentro guztietan sustatzeko gimnasioa eta ideia, gurtza, lanbide eta adin ezberdinetako pertsonentzako talde jarduerak. Gym Berdearen proiektua duela urtebete sortu zen, Besaia enpresak sustatua eta Eusko Jaurlaritzak, Euskadi Lagunkoia Sustraietatik-ek eta Larrabetzuko Udalak babesturikoa. Hilaren 15ean hasi ziren eta astean ordu bi eta erdiko saioak ematen ari dira 20 euroren truke.

Santa Luziako hiru fatxada estali dira

Hotza eta euria dela eta, Loiuako Udalak Santa Luziako iparraldeko hiru fatxada estali ditu, ekipamendua euria egiten duen egunetan erabili ahal izateko, auzotarren eskakizunei so eginez: "Horrela, umeek euria egiten duten egunetan jolas egin ahal izango dute", azaldu du Josu Andoni Begoña alkateak. "Gurasoek egindako eskakizuna da eta, gainera, herriaren erdigunean egonda, zonalde ona da". Aterpeaz gain, inauguratu berri diren padel pistak ere estali egin dira, eguraldiak kirola ez egiteko aitzakia ez izateko.

**Txorierrik
egaz**

**enviser**

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-aitzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio

TEL. 94 424 38 34

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**
ALBALTARITZA
Nerea Pedrosa Calo, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 889 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Iskanbila Sondikako Udala eta udaletxeko langileen artean

Pasa den otsailaren 15ean, ELA sindikatuak Sondikako Udaleko 16 funtzionario lan-etendaldia egitera deitu zituen Udaleko langile baten lanpostuaren amortizazioa dela-eta. 2014ko hasieran, ofizio-lanetan zebilen udaletxeko langile bat jubilatutako egin zen, eta harrezgeroztik lanpostu hori libre dago. Udalak kanpoko enpresa bati eskainiko dio lanpostua.

“Egoera oso larria da, eta are gehiago egiten dituzten lanak kontuan hartuta. Langile hauek ehorzketa-lanetan ibiltzen dira, eta zerbitzu horiek oso bereziak dira udaletxe batean eman behar diren zerbitzuen artean”, adierazi du ELA sindikatuak komunikatu batean. Andoni Berazak, Udaleko ordezkariak, lanpostu hori Txorierrikan kanpoko enpresa pribatu batek beteko duela adierazi du El Correo kazetan. Langileak, aldiz, ez daude ados: “Lanpostu hori behar bezala bete behar da Udalarekin kontratua daukan langile batekin”, aldarrikatu dute. “Eta Udalak hartutako erabakiak aurrera egiten badu lanpostu bat desagertuko da, Udalak eman behar dituen zerbitzuetan atzera-pausua eman eta lanpostu prekarioak sortuko dira”.

“Langileek greba egiteko eskubidea erabat errespetatzen dugu”, adierazi du Xabier Zubiaur alkateak prentsa-ohar batean. “Erabaki horren helburua baliabide kopurua handitzea da. Horrela, sondikoz-



tarrek merezi duten zerbitzu kalitatea bermatuko dugu”. Udalak argitaratu duen jakinarazpenean, gaur egun Sondikako brigadak eskaintzen duen zerbitzua kanpoko enpresa baten bidez hobetu nahi dela aipatzen da: “Gaur egungo langileak momentura arte lan egin duten bezala jarraituko dute eta, horrez gain, lan hori osatzeaz arduratuko den enpresa egongo da, aktibitatea bikoituz. Eraba-

kiak ez du eraginik izango gaur egungo lan-taldearen lan baldintzetan”. Zubiaur azaldu duenez, Bizkaiko bestelako herrietan modelo bera ezarri da, “eta ez da greba kasu bakar bat ere eman”. Bertan antzeko kasuak ematen direla aipatu du: “Sondikan barneratu dugun modeloa da: lorezaintza, bide-garbitzeta, zabor-bilketeta, argiztapen sistema, arratoi-ezabatze sistema...”.

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Bonuak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñeri etorbidea, 9 - Loroja | Antsaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 667 79 54 46
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoriñeri etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 99
a.amondarain@euskalnet.net

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINETOKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-8 nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



Negu García Ayarza | Motorren sendagilea

Motorretaz bizi da Negu. Ikasketak bukatu ostean, Mercedes eta Audi bezalako tailerretan ibili zen mekanikari, baina lan baldintzekin pozik ez zegoenez, Larrabetzun JJ Tailerrak izeneko garaje propioa zabaltzea erabaki zuen (Jon eta Jon Negu lankideen artekoa) duela hiru urte. Herriko auto tailer bakarra da, eta herritarrek ez dute zertan autoa Galdakao edo Bilbora eramane behar.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Lurrean piezak eta koipea praktetan, eta abilitadeara atzamar puntetan. Ez al dozu sumatzen motorren bat ketan gasolina usaindun argazki honetan?

Itallen Bertso Eskola



Garmendia ardoak
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Hertz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hertz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODOONTZIA
Areltza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



OPTIKA IKUSLAN
RPS: 18470
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

“Gospela euskaraz egiten duen talde bakarra gara”

THE UPPER ROOM | talde gipuzkoarra

Azken bolada honetan, behin eta berriro hurbildu da Txorierrira The Upper Room gospel taldea. Abenduan, bestek beste, Lezaman eta Derion egon ziren. Donostiarrek gospel musika euskaraz egiten duen talde euskaldun bakarra osatzen dute eta hori aitzakia ezin hobea da eurekin hitz egiteko.

t: Gaizka Eguzkitza / a: The Upper Room

Ez da batere ohikoa Euskal Herrian gospela egitea. Zelan hasi zineten?

The Upper Room taldea 2005ean sortu genuen Donostian. Mikel San José abeslaria da eta ni neu, Iñaki Miguel, piano-jotzailea. Mikel eta biok The Croppers rhythm and blues taldean ezagutu genuen elkar. Talde horrek rocka eta bluesa egiten zituen, baina niri gospela betidanik gustatu izan zait. Kontzertuak ikusten nituen, diskoak erosten nituen... Mikeli ere bai, eta egun batean erabaki genuen gospel bikotea osatzea. The Upper Room taldea gospela euskaraz egiten duen talde bakarra da munduan.

Izena nondik dator?

In the upper room gospel kanta famatua da. Eta hortik hartu genuen gure izena. *The upper room* edo goiko gela metafora bat da, eta zerua edo Jaungoikoa dagoen lekua aipatzen du. Gospela oso musika espirituala da eta askotan kanten Jaungoikoari buruz hitz egiten dute. Beraz, oso izen aproposa iruditu zitzaigun.

Gospela beltzek sortu zuten. Arraroa da zuriak gospela abestea?

Ez, inondik inora. Egia da duela 60 urte gizartea Estatu Batuetan erabat bananduta zegoela: beltzak, alde batetik;

eta zuriak, bestetik eta gaur egun ere nahiko bananduta dagoela. Horren isla da bakoitzak bere gospel mota jotzen duela. Gospel beltzak blues edo soul ikutuak ditu; zuriak, aldiz, country ikutuak. Eta geurea zuria da, gu zuriak garelako eta gure soinua ere bai. Dena dela, gospela hainbat estilotako nahaste handia da eta batzuetan era batean jotzen dugu eta besteetan, beste era batean. Eta horrexegatik, hain zuzen ere, izugarri gustatzen zait gospela: itzel gustatzen zaizkidan estiloak batzen dituelako: rocka, bluesa, soula... Koktel zoragarria da!

Gospela eta euskaraz. Hori bada oso bitxia...

Bai. Hasiera batean, ingelesezko bertsoiak abesten genituen, baina pixkanaka-pixkanaka geure kanta propioak hasi ginen lantzen. Eta orduan, geure buruari hau galdetu genion: “Eta zergatik ez euskaraz?”. Eta horrela hasi ginen.

Nolako erreperorioa duzue? Euskaraz, ingelesez...

Denetarik daukagu, gure erreperorioa oso zabala baita, baina batez ere hiru kanta mota ditugu: guk egindakoak, guztiak euskaraz; bertsoiak, euskaraz ere bai; eta gospel musikako betiko kanten bertsoiak, ingelesez. Gehienak geure kanta propioak dira, % 80 gutxi gorabehera. Esate baterako, *Oh happy day* kantarekin

“Gospel beltzak blues edo soul ikutuak ditu; zuriak, aldiz, country ikutuak. Geurea zuria da”



“Gure errepertorioa oso zabala da, eta % 80 guk egindako kantek osatzen dute, guztiak euskaraz”

hasten ditugu kontzertuak, baina euskarazko bertsoia landu dugu, *Egun alaia*.

Jendeak zelan hartzen du gospela euskaraz?

Ez dakit. Uste dut gehienei arraro egingo zaiela, gospel musika euskaraz entzutea arraro-arraroa delako. Hala ere, lehenengo ustekabea pasatzen denean, jendea gustura dago. Orain arte jaso dugun erantzuna oso ona izan da: publikoa alai agertzen da, kontzertuetan parte hartzen du, gogor txalotzen dute...

Gospela normalean abesbatzek egiten dute, baina zuek bikotea baino ez zarete...

Tira, formaturik ezagunena da abesbatzena, baina ez bakarra. Jazz musikari



dagokionez, esate baterako, hainbat eratan aurkeztu ahal duzu: kontrabajo, gitarra eta bateria, big band moduan... Gospellean ere gauza bera gertatzen da. Mahalia Jackson da gospelen erregina eta askotan piano batek lagunduta agertzen eszenatokian. Gu bikotean agertzen

gara, baina laster beste gauza bat egingo dugu. Izan ere, aurten argitartuko dugu disko bat eta hori banda oso batekin grabatu dugu: bateria, bajua, organoa eta abesbatza. Disko horrek 10 kanta dakartz eta guztiak, guk egindakoak eta euskaraz.

Arteaga BIZIGUNEA

ZAMUDIO

LASTER ERAIKIKO DIRA

18 etxebizitza kooperatiban kostu-prezioan
2, 3 eta 4 logelakoak, garajea, trastelekua eta hornitutako sukaldeak barne.

Duplexak eta atikoak terraza zabalekin.

184.500 €-tik hasita

26 udal etxebizitza tasatuak kooperatiban kostu-prezioan
2 eta 3 logelakoak, garajea eta trastelekua barne.

Atikoak terraza zabalekin.

152.500 €-tik hasita

GESTIOA: **ekogi** **ARRASATE**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA: **iturburu**

FINANTZIAZIOA: **k** kutxabank

656 78 12 41
arteagabizigunea.com

Gasolina eta kimikoen analogian

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

JON INZA | mekanikoa

Diferentea da. Motorra daukan gazte zaratatsu asko dago Txorierrin, baina bera salbuespena da. Duela urte batzuk elektromekanikako erdi-mailako zikloa egin zuen, eta iaz Deustuko garaje batean mekaniko lan egiten egon bazen ere, lanik gabe dabil momentu honetan. Automobilismoa bere pasioa da eta hainbat motor izan ditu momentura arte: "Motorrak erosi, konpondu eta saldu ditut. Burdin asko izan ditut esku artean txikitatik", adierazi du Sondikakoak.

Motorrarekiko pasio hau betidanik izan du etxean: "Aita eta osaba motozaleak dira, eta nik bizitza motorraren inguruan eraiki dut". Osaba *Tito Inza* da, eta moto klasikoetan parte hartzen du askotan: "Duela urte batzuk Sangronizen egindako Sondika Urban Circuit-en parte hartu zuen, eta azken boladan osasunez makal egon bazen ere, moto bi karro batean igo eta Spako moto kontzentrazioa joan zen bere kabuz (Belgika). Estatu mailan, motorra hartu eta Gijonera abiatu zen, kontzentrazio batera", azaldu du gazteak.

Hiru urterekin lehen motorra oparitu zioten Joni: Bultaco Chispa bat: "Harrez geroztik etxean gordetzen du osabak" azaldu du. Bederatzi urterekin 250ccko Sherco bat izan zuen. Hortik aurrera hainbat Mobilette oparitu zizkieten, piezatan:

Goitik behera ikusita, Jon Inza beste garai batetik datozen gazte dirudi: Martens botak, praka estuak, poloa eta bigarren eskuko larruzko motozalearen jaka. Eskumuturrean pilarik gabeko erloju analogikoa darama. Hanka artean 50 cc-ko Aprilia RSa. Motorren burrumba eta negatiboen kimikoen maitalea, 22 urteko gazte sondikoztarren ametsa motorraren munduaz bizitzea da, mekaniko bezala, inolako luxurik gabe, eta mugarik gabe kilometroak eginez bere ametsetako motoekin.

"Momentu hartan hasi nintzen mekanikaren munduan muturra sartzen". Pieza horiekin lehen motorra montatu zuen, 12 urte zituela. Urte batzuk geroago Montesa Cota 309a erosi zuen, bere lehen motorra. Ondoren, mendiko 250 cc-ko

Suzuki RM batengatik aldatu zuen. Ostein 350 cc-ko Yamaha RDa erosi zuen, eta aurrerago, Kawasaki KX 250 bat. Gehienak antzinako motorrak dira, Jonen janzkerarekin bat datozen horietakoak: "Yamaha RDa udazkenean saldu nuen", adierazi du.

Motorrak salerosteaz gain, Jonek berak egiten dizkie mantentze-lanak Algotako lonja txiki batean: "Espazioa berez oso txikia da, baina momentuz ondo konpontzen naiz behar ditudan konponketak egin ahal izateko", adierazi du.

Altxor baten oinordekoa

Aitite argazkilaritzaren maitalea zuen eta amamak film karreteak errebelatzen laguntzen zion. Aitite hil zenean, antzinako argazki kamera ugari hartu zituzten

*"Motorrak erosi,
konpondu eta saldu
ditut. Burdin asko
izan ditut esku
artean txikitatik"*





herentzian, aitak, osabak eta Jonex. "Helburua ez da argazkilaritzan era profesionalean aritzea, hobby batean baizik". Zaletasun modura beraz, Jonex argazkiak bere kabuz errebelatzen ditu. Bakarrik batzutan, lagunekin, beste batzutan. Aiti-te-amamak egiten zuten bezala.

Ez dauka argazki kamera digitalik: "Behar dudanean lagunei lapurtzen diet", aitortzen du. Ateratzen dituen argazkiak ez ditu inolako blog edo webgunera igotzen, Facebookera baizik. Joan Fontcuberta argazkilaria katalanak esaten du argazkilaritza hil egin dugula, gaur egun argazkilaritza-ondokoaren aroan bizi gara. Argazkilaria esanetan, antzina, argazki bat betiko gogoratzeko helburuarekin egiten zen. Gaur, oster, milaka

"Helburua ez da argazkilaritzan era profesionalean aritzea, hobby batean baizik"

argazki egiten dira minuturo eta sare sozialetara igotzen dira, ia pentsatu gabe.

Jonex formatu ezberdinetako hainbat argazki kamera heredatu ditu: 120 mmko Kiev 88 bi, 35 mmko Pentax bat, Leica bat, Rolley bat, 60. hamarkadako 35 mmko Kodak bat... "Aukera bi nituen:

apalategi batean hautsa hartzen utzi edota konpontzen saiatu. Konpontzeko saiakeran apurtzeko arriskua dagoela badakit. Apurtuz gero, berdin-berdin jarriko nituzke apalategian". Hortaz, martxan jarri zen: pazientziak eta ordu asko emanaz, Jonex kamerak banan-banan ireki, garbitu eta konpondu ditu. Joan den mendeko altxor horiek martxan dauzka 2017 urtean.

Jonen ametsa trankil bizitzea da, inolako luxurik gabe, eta maite duen hori egiten: mekaniko-lanak. Horretarako, garaje propioa duen etxea izatea gustatuko litzaioke, ez horrekin negozioa egiteko, baizik eta lana gustura egin ahal izateko. Etorkizunean motoetan lehiatzea gustatuko litzaioke, hori bai, klasikoetan.



Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin



Uhartza Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 433 40 60 | info@txorierri.net
48100 - DEIRO | Fax: 94 433 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Apirilak 25, maiatzak 4 eta ekainak 8 (18:30tik aurrera)

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Saimentean eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak
ezagutzera etorri



Herritarren txanda

Martxoak 19 gogoan izateko eguna izango da. Izan ere, Ebatzi Larrabetzuko Gure Esku Dago taldeak herri-galdeketa antolatu du. Horrek aukera emango die lehendabiziko aldiz larrabetzuarrei Euskal Herriaren estatus politikolari buruzko iritzia emateko. Bozketarekin batera jai eguna ospatuko dute herrian.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Idoia Andres

“Emitzari baino parte-hartzeari ematen diogu garrantzia. Gure ustez, funtsezkoa da herritarren hitza entzutea. Guztiok hartu behar dugu parte, independentzia eta burujabetzaren aldekoak, zein kontrakoak, benetan euskal gizarteak horren inguruan zer pentsatzen duen jakiteko. Parte hartzea handia bada, emaitza oso aberasgarria izango da”, dio Maiorga Torvisco Ebatziko kideak. Larrabetzuko Gure Esku Dago ekimenaren kideek jai eguna prestatu dute martxoaren 19rako: bertso-lariak, dantza taldeak, herri kirolak, saskibaloia partida bat, musika, ipuin kontalariak umeentzat...

Galdeketa hauteskunde arrunt bat izango balitz moduan antolatu da, baina aldaketa batzuk egongo dira. Esate baterako, boza emateko eskubidea Larrabetzun erroldutako 16 urtetik gorako lagunek izango dute. Eta gainera, hauteskunde batzuetan gertatzen ez den moduan, atzerritarrek ere badute boza emateko ahalmena, aurreko baldintza bete-

tzen badute. Bozkatzeko ordutegia 9:00tik 20:00etara bitartean luzatuko da, Ebatzi elkarteko egoitzan, lehen BBK-ko bulegoa zegoen lekuan.

Ebatzikoek ez dute oraindik behin betiko galdera zehaztu, baina hiru proposamen jakinarazi dituzte herrian, postaz, etxez etxe: *Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi duzu?*; *Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?*; eta *Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu?* “Herriko jenderaekin ibili gara harremanetan eta oraindik ekarpenak egiten dabilta. Horrelako galdera bat proposatuko dugu azkenean”, dio Maiorgak.

“Emitzari baino parte-hartzeari ematen diogu garrantzia. Funtsezkoa da herritarren hitza entzutea”

Ebatzikoek diote emaitza ez dela hain garrantzitsua, baina zer gertatuko litzateke Larrabetzuk eurek nahi ez duten erantzuna emango balu? “Ba, oso ondo. Hemen oso nekez aterako da kontrako emaitza bat, baina horrelakoa gertatzen bada, oso pozik ibiliko gara, jendeak parte hartu duelako eta nork bere iritzia adierazi egin duelako. Askotan eztabaida konstruktibo bat botatzen dugu faltan”, adierazi dute. “Guk espero dugun gauza bakarra da ahalik eta jende gehienek parte hartzea. Herria ahalduztea nahi dugu, hau da, herritarrok ez dugu indarririk mugitzen ez bagara; baina orain mugitzen gabilta”.

Gero eta herri gehiago

Beraz, emaitza oso baliogarria izango da. “Politikariak politika munduan dabilta, eta askotan ez diote jendeari jaramon handirik egiten, gugandik urrun arituko balira moduan. Eta horregatik sortu da Gure Esku Dago herritarren ekimena, herritarroi hitza emateko. Eta hori politikariak ezin dute baztertu, herritarren nahia jaso beharko dute, mugimendua garrantza doalako. Duela pare bat urte, galdegia herri bitan egin zen; iaz, 38 herritan; eta aurtan, 112 herritan, eta haietako 30 baino gehiago, Bizkaian, gure inguruan: Getxo, Arrigorriaga... Guztira

Boza emateko eskubidea Larrabetzun erroldutako 16 urtetik gorako lagun guztiek izango dute

600.000 mila biztanlek izango dugu gure iritzia emateko aukera. Eta datorren urtean aurrera jarraituko dugu eta beste herri batzuek egingo dute bat ekimenarekin”.

Larrabetzu izango da Txorierrin horrelako galdeketa bat egiten den lehenengo herria. Etorkizunari begira, Ebatzikoek uste dute Txorierrira ere zabalduko dela galdeketa. “Gure Esku Dago ekimenaren nahia ez da herri guzti-guztietan galdeketa egitea, baina argi dago gero eta herri gehiago animatzen direla. Eta Txorierrin ere bai. Loian izan ezik, gainontzeko herrietan badago Gure Esku Dago ekimenaren talde bana. Eta Larrabetzun galdeketa egin ostean, ekimena suspertuko da gainontzeko herrietan”.

Batzuek uste dute galdeketa egitea erabat zilegia dela; batzuek, ez, ordea. “Politikariak oso gustura bizi izan dira zehaztu gabeko egoera batean. Eta askotan erantzunak neurtu egin dituzte jendearen jarreraren arabera. Hori dela-eta, herritarrok ez dugu Euskal Herriko egoera politikoari buruzko irtenbiderik ikusi, hainbat urte horren inguruan eztabaidatzen eman ostean. Bada garaia gai horri

erantzuna emateko, kontra ala alde, baina behintzat iritzia emateko aukera”.

Gure Esku Dago ekimena 2013an sortu zen eta harrezkero momentu txarrak zein onak bizi izan ditu. Esate baterako, 2015ean ekitaldi erraldoia egin zen San Mamesen, baina hori ez zen espero zuten bezain arraskatasua izan. “Errea-

litateak gogor kolpekatu gintuen, eta horrek etsipena eta zalantzak ekarri zitizkizun. Hala ere, herri-galdeketa haritik, ilusio berpiztu egin da eta taldeak indartu egin dira. Gaur egun, Gure Esku Dago bizi-bizirik dago. Eta dinamikaren helburuak betetzen ditugun heinean, gauzak Euskal Herrian aldatu eta hobetuko dira”.



LUZATU ZURE MOTORRAREN BIZIRAUPENA

70€
-ETIK



Olio-aldaketa eta iragazki-aldaketa %100 eko MOTUL sintetikoa (5W30 C2-C3) erabiliz.

Olio-aldaketa bakoitzarekin autoaren 24 punturen doako ikuskapena

Banaketa-uhala aldatzea

450€
-ETIK



Disko eta pastilletan

%30



Etorri gu ezagutzera!

OPARIA
izakinak
agortu
arte



Ikusi gure sustapenak eta deskontuak. Etorri informatzera, eta opari erabilgarri bat egingo dizugu

Zure segurtasunaz arduratzen gara

DOHAIN



Doako freno-likido aldatzea freno eta pastilla aldatetekin

PNEUMATIKOEN ALDAKETA, MARKA GUZTIAK



688 847 633
946 572 315
944 654 991
lker@mujitailerrak.com

Muji TAILERRAK

MUJI TAILERRAK
Inbisa industrialdea
Astintze kalea 6, 16-17 C2 Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia

“Asko esaten da isiltasunaren bidez”

LARA IZAGIRRE | zinema zuzendaria

Istori bat ondo kontatzea zaila bada ere, ezer esan gabe egitea are zailagoa. Lara Izagirre film zuzendariak *Un Otoño sin Berlín* filmaren bidez egin zuen pasa den urteko otsailean. Goya bat irabazitako urteurrena dela eta, Larrabetzuko Gariza Films ekoiztetxean izan gara 31 urteko Zornotzako nesken ibilera gertutik ezagutzeko.



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Zergatik zinema?

Instituan oraindik ez neukan argi zinemagintza gustatuko zitzaidanik. Unibertsitatean ikusentzunezkoen karrera hautatu nuen, eta bertan zinemagintza lantzen zen, baina bestelako medioen artean: irratia, telebista, zinema... denborak aurrera egin ahala zinema gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Azken urtean zinema eta bideoa modalitatea aukeratu nuen.

Zelakoa da Lara Izagirreraren zinema?

Oso pertsonala da. Egindako zinta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Orokorrean, esango nuke oinarrian pertsonekin lan egitea gustatzen zaidala. Dokumentaletako pertsonai horiekin denbora pasatzea asko gustatzen zait. Fikzioaren kasuan, aktoreekin lan egitea gustatzen zait. Uste dut hori nire lanetan nabari dela.

Un Otoño sin Berlin zure lehen filma da. Laburrak edo filmak?

Gauza oso ezberdinak dira. Inoiz ez nago guztiz eroso. Medioari beldurra diot eta zinemagintza egitea gauza serioa da. Gidoien eta pertsonaien arabera laburrak edo filmak egiten ditut. Egoeraren arabera.

Zelan sortu zitzazun Un Otoño sin Berlin (2015) zinta egitearen ideia?

2011n idatzi nuen, eta ordenagailuko ezkutuko karpeta baten gorde nuen. Ondoren beste bi laburmetrai egin ni-

“Aktoreekin lan egitea gustatzen zait. Hori nire lanetan nabari da”

“Inoiz ez nago guztiz eroso. Medioari beldurra diot eta zinemagintza egitea gauza serioa da”

tuen: *Next Stop Greenland* (laburmetrai-dokumentala, 2012) eta *Sormenaren Bide Ezkutuak* (laburmetraia, 2013). Lan horiek harrera ona izan zuten. Horren ostean gauza ezberdin eta luzeago bat egitearen nahia sentitu nuen. Orduan, 2011n idatzitako gidoi hura berreskuratu eta berrirakurri egin nuen 2013an, eta filma egiten hasi ginen.

Zein izan zen hurrengo pausua?

Produkzioarako kolaboratzaileak bilatzen hasi ginen. Momentu hartan Iñaki Juaristi ekoizlea ibili zen elkarlanean gurekin. Bera produkzioko alor guztia bideratu zuen Gorka Izagirrerekin. Gainera ETBko laguntza izan genuen. Horrez gain inbertsio pribatu batzuk egin genituen. Bitartean, ni alde kreatiboa lantzen hasi nintzen: aktoreak, talde artistikoa... kon-

turatu ginenerako pelikula bat egiten ari ginen.

Ezagunik bazenuen aktoreen artean.

Ramón Barea. Berarekin *Kea* (2012) grabatu nuen. Argi neukan Ramón filman rolen bat izan behar zuela. Ez nekien zein, baina agertu behar zuen, segurtasun asko ematen didalako eta adiskide ona delako. Naiara Carmona, Irene Escolar eta Tamar Novas... euren lana alde aurretik ezagutzen nuen.

Horietako birekin feeling berezia izan zenuen.

Naiara Carmona eta Irene Escolar nire etxean bizi izan ziren filma grabatu genuen bitartean. Grabaketara joatea udalduketara joatea bezalakoa zen: grabaketan lan egiten genuen, eta etxean hurrengo eguneko *actingak* entseatzeko genituen. Lagun minak egin ginen.

Zer kontatzen duzu zintan?

Maitasun harreman asko ematen dira bertan: bikote baten artekoa, familia artekoa, lagun artekoa... ez da Hollywood-eko maitasuna, eguneroko maitasuna baizik. Maitasunari kontrajarrita, ametsak eta dilemak agertzen dira. June da protagonista eta pelikula osoan bere ibilbidea jarraitzen dugu, udazken batean zehar. Helburua antzinako bikotekidea, egun etxetik irteten ez dena, Berlinera eramatea da.

Isiltasunak berebiziko garrantzia du zinta honetan.

Asko esaten da isiltasunaren bitartez. Ikusi eta bizi behar diren momen-

Konekta zaitez gurekin!

aikor
txorierriko aldizkaria



Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:
@AikorTxorierri



Webgunea:
www.aikor.eus





“Ez genuen espero horrelako harrera. Pentsatzen genuen filmak publiko txikiagoa izango zuela”

Euskal Herriko Unibertsitateak eta zinema akademia batek eskaintzen dituzten materiak zeharo ezberdinak dira.

Karrera egin nuenean oso teorikoa iruditu zitzaidan dena. Denbora asko ematen genuen beste gauza asko ikasten. Hirugarren eta laugarren urtean bidea topatu eta praktikak egin nituen. Mundua ezagutzeko eta hazteko ondo dago. Estatu Batuetan guztiz praktikoa zen ikasurtea aukeratu nuen. Zinemagintzaren prisma ezberdin bi dira.

Estatu Batuetako zinemagintza eta bertakoa. Mundu bi?

Estatu Batuetan zinemagintza bigarren industria garrantzitsuena da, arme-

tuak erakusten ditu filmak. Ez da pelikula erraza ikuslearentzat. Ez da ematen informazio guztia, hutsune asko daude. Ixilik gaudenean gauza asko esaten ditugu.

Arrakasta Donostiako Zinemaldian. Zein izan daiteke arrakastaren gakoa?

Ez genuen espero horrelako harrera. Pentsatzen genuen filmak publiko txikiagoa izango zuela. Askok harritu ginen. *Un Otoño Sin Berlín*ek pertsonaia ezberdin asko dauzka eta ikusle batek pertsonaia horiekin konektatzeko aukerak ditu: protagonista, laguna, aita... Jendeak konezioak bilatzen ditu askotan filmetan.

Zenbat pertsona eta zenbat denbora eman duzue, eta non?

30 pertsona inguru izan ginen egun normaletan, zortzi astetan zehar, Zornotzan, Bilboko Arriaga antzokian eta Miguel de Unamuno institutuan.

Ireneren antzezpenak Goya esku-ratu zuen. Zelako esperientzia da?

Urtebete igaro da eta sinistea zaila egiten zait oraindik. Beti amestu dut Goya bat irabaztearekin, baina oso zaila da. Urte hartan, Ireneren actinga berarekin batera nominatuak zeuden aktoreekin alderatuta onena izan zen, nire ustez. Merezi izan zuen. Baina errealitateak erakutsi digu askotan ez dutela onenek irabazten. Batzuk ez dira nominatuak izatera heltzen ere!

Escolar kamera aurrean estreinatzen ere.

Jendea zain zegoen, momentura arte Madrileko antzerkian aritutako aktorea

izan delako. Irene moduko aktore batek June pertsonaia behar zuen, eta June bezalako pertsonaia Irene bezalako aktorea behar zuen. Akademikoei ikusi eta bozkatu zuten. Ez zen filtraziorik egon, eta saria jasotzea oso momentu polita eta hunkigarria izan zen.



“Irenek Goya merezi izan zuen. Baina errealitateak erakutsi digu askotan ez dutela onenek irabazten”

naren ostein. Euskal Herrian, zinemagintzari milioi bat euro ematen zaio guztira dirulaguntzetan. Horrela ez da sekula zinemaren inguruko industriarik sortuko. Gainera, ez hemen, ez Espainian, zinemagintza ez dago oso baloratua. Talentu asko daukan jendea dago, baina industriarik ez, ordea. Horrela, zinematik bizitzea oso zaila da.

Zaila, baina ezinezkoa?

Bizitza baldintzak baloratzen badira, posible da. Baina ez da kanpotik ikusita ematen duena. Jende normala gara eta lan arrunta duten pertsonak bezala bizi gara, exotikoagoa dela eman arren.

Oztoporik izan al duzu zure ibilbidean?

“AEBetan zinemagintza bigarren industria da. Euskal Herrian milioi bat euro ematen zaio guztira diru-laguntzetan”

Lan piloa egin behar da. Jendeak uste duena baino askoz gehiago. Nire ustez, lan asko egiten bada denbora luzean zehar azkenean oztopo guztiak desagertzen dira.

Zertan zabilta momentu honetan?

Gidoiak idazteko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen dirulaguntza jaso nuen eta 2017a proiektu berriak sortzeko urtea dela esan daiteke.

Aurrerapenik?

Euskara hutsean grabatuko den fikziozko filma izango da, komediara hurbilduz. 2018an grabatu eta 2019an amaitzeko asmoa daukat, 2020an estreinatzeko, dena ondo badoa.



Filmografia

–*Un Otoño sin Berlin*, 2015 (filma), zuzendaria eta idazlea.

–*Larroxa*, 2013 (laburra), zuzendaria eta idazlea.

–*Sormenaren bide ezkutuak*, 2013 (laburra), zuzendaria, idazlea eta ekoizlea.

–*Next Stop Greenland*, 2012 (laburmetrai dokumentala), zuzendaria eta idazlea.

–*Kea*, 2012 (laburra) Zuzendaria, idazlea, ekoizlea.

–*Bicycle Poem*, 2010 (laburra), zuzendaria, idazlea, ekoizlea.

–*Spiderman & Grandma*, 2009 (laburra), zuzendaria eta idazlea.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



PELIKULA
Igelak

ZATOZTE DANOKI

Martxoaren 23an, eguena
Derioko Gurea Aretoan
10:00etan / 18:30ean

Saioak euro bat balio du

EDONORENTZAKO EKITALDI ZABALA!



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eu

Hiri-hondakinen kudeaketa iraunkorrago baten alde

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta Zamudioko Udalak Waste4Think Europako proiektuan hartuko du parte datozen hiru urteotan. Horrek hiri iraunkorragoak eta ingurumena gehiago zainduko dutenak sortzea du helburu, teknologian eta herritarren inplikazioan oinarrituta. Proiektuak asmo handiko bigarren mailako helburuak ere baditu: hondakinen sorrera murriztea eta haien kudeaketaren kostuak gutxitzea. Horiek Zamudion bete ahal izateko, parte hartzeko prozesu bat egin dute, herritarrek nola kontsumitzen duten eta hondakinak nola kudeatzen dituzten ikusteko, alde batetik; eta ohitura iraunkorragoak hartzeko prest egongo liratekeen aztertzeke, bestetik.

Bildutako datuen arabera, Txorierrin sentsibilizazio handia dago bai eskualdeko industrietan bai herritarren artean hondakinen bolumena txikitzeko. Izan ere, jende askok horren aldeko ohiturak ditu: poltsa berrerabilgarriak edo erosketetarako karrua erabiltzea, plastikozko poltsen ordez; ontziratu gabeko produktuak hautatzea, dena paketatuta erosi beharrean; eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzea meriendak edo jatekoak eramateko, besteak beste. Gainera, tokiko merkataritza eta sasoiko produktuak erabat txertatuta daude eguneroko

Proiektuak hondakinen sorrera murriztea eta haien kudeaketaren kostuak gutxitzea ditu helburu

Txorierrin sentsibilizazio handia dago, eskualdeko industrietan eta herritarren artean hondakinen bolumena txikitzeko

Txorierriko Mankomunitateak eta Zamudioko Udalak hondakinen tratamenduak dakartzan ekonomia- eta ingurumen-kostuak gutxitu nahi dituzte. Herritarrei eginko inkesta batek oinarriak ezarri ditu, datozen hiru urteotan Waste4Think Europako proiektuan elkarlanean aritzeko; helburuetako bat hondakinen sorrera % 5etik % 10era bitartean murriztea izango da.

bizitzan, eta haien aztarna ekologikoa beste artikulatu batzuen bano txikiagoa da.

Hala eta guztiz ere, udalerriek oraindik ere hondakin asko sortzen ditugu. Horixe erakusten dute Txorierriko Mankomunitateak 2016an bildu zituen 11.338,10 tonen; kopuru horretan, nahastuta bildutako hondakinak eta gaika bildutakoak sartzen dira. Mankomunitatearen datuetan ez daude Garbiguneari emandako hondakinak sartuta, baina bai saltokietatik, ostala-

ritza-establezimenduetatik eta enpresetatik bildutakoak, betiere sortutako kopuruak etxean sortutakoen antzekoak badira. Alde horretatik, Waste4Think proiektuak hainbat helburu ezarri ditu herri pilotu gisa parte hartzen duten lau hirietarako (Zamudio, Greziako Halandri, Portugalgo Cascais eta Italiako Seveso); besteak beste, 2020. urterako hiri-hondakinen tonak % 5etik %10era bitartean Zamudion murriztea.



Halandri, Cascais, Seveso eta Zamudio herrietako eta beste partaideen ordezkariak, Deustuko Unibertsitatean.



Gainera, ingurune-inpaktua eta kudeaketaren gastuak ere gutxitu daitezke, baldin eta hondakinak hobeto sailkatzen badira, ondoren tratatu ahal izateko. Hondakin mota bakoitzerako edukiontzi jakin bat erabiltzeko merkatu egiten du tratamenduaren kostua, eta, horrez gain, birziklatzeko eta lehengaiak berrerabiltzeko bide ematen du. Hori dela eta, Waste4Think proiektuak, DeustoTech buru duela eta 17 bazkide europar gehiagorekin, hiri-hondakinaren sailkapena % 30 areagotzeko asmoa du Zamudion, Europako agendarekin bat-agendaren 2020. urterako helburuetako bat birziklapena eta materialak lehengoratzeko beste operazio batzuk egungo % 36tik % 42ra handitzea da.

Zamudioko datuak

Ildo horretatik, Zamudion egindako inkestak erakusten duenez, papera, beira eta ontziak botatzeko ohiko edukiontziak erabat txertatuta daude herritarren ohituretan, baina geroago ezarri diren beste batzuk, konposta eta etxean erabiltako olioa botatzekoak, adibidez, oraindik ere denbora behar dute herritarren artean finkatzeko. Datuen arabera, herritarren ehuneko handi batek (ia % 40k) oraindik zalan-



tzak ditu oro har birziklatzeari buruz, informazio gutxiegi dutelako edota birziklapenean konfiantzarik ez dutelako. Eta zalan-tza gehien sortzen duten edukiontziak, hain zuzen ere, marroia (hondakin organikoetarako) eta laranja (etxeko oliorako) dira, Mankomunitateak horien aldeko informazio-kanpaina indartsuak egin arren. Gainera, zenbait herritarrek zalantzak dituzte Garbigunera eraman beharreko hon-



This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under grant agreement 688995. The dissemination of results herein reflects only the author's view and the European Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains.

dakinei buruz, baita edukiontzi bakoitzera bota behar dutenari buruz ere.

Proiektuaren helburua, hain justu, informazioa sustatzea eta herritarrek gehiago inplikatzeko da. Hori lortzeko, garrantasuna landuko du eta hondakin bilketari eta tratamenduari buruzko datu errealak emango ditu. Halaber, informazio gehiago jarriko du hondakin mota bakoitzari non bota azaltzeko eta, horretarako, zenbait tresna erabiltzeko aukera aztertu-ko du (serious games direlakoak eta saketako telefonorako aplikazioak, adibidez).

Dena dela, zaila da zabor batzuk tratatzea gaur egun gaika jasotzeko dugun sistemarekin. Horixe gertatzen da, esaterako, pixoihaletan. Eta kudeatzeko are zailagoak izaten dira beste hondakin batzuekin nahastuta biltzen badira. Pixoihal berrera-bilgarriak alternatibatzat jo daitezke; dena dela, behin erabiltzeko pixoihalak erabiltzen dituztenentzat, Zamudiok kontuan hartuko du haiek biltzeko edukiontzi bereziak jartzeko aukera.

Horrela, hondakinak tratatzeko ohiturei buruzko diagnostiko erreal batean oinarrituta, Waste4Think proiektuak lan egingo du herritarrek ikaskuntza partekatuan, baterako sorkuntzan eta ohitura iraunkorrerako hartzeko prozesuan inplika daitezken. Izan ere, modu horretan baino ezingo zaie etekina atera proiekturako landuko diren soluzio teknologikoei; proiektuaren helburua da, hain zuzen, 2020. urterako kudeaketaren kostua % 10etik % 30era bitartean gutxitzea eta berotegi-gasen emisioa, % 10etik % 20ra bitartean Zamudion.



Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 8 ez da ospatzeko eguna, aldarrikapen eguna baizik. Azken urteetan aurrerapasoak handiak izan arren, oraindik ere bide luzea geratzen da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. Hori dela-eta, Txorierriko Mankomunitateak emakumeenganako diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko gizartea bultzatzeko berdintasunaren aldeko politikak sustatzeko apustu sendoa egiten du. Hona hemen Txorierriko herrietan egingo diren ekintzak:

LEZAMA

–**Martxoak 3:** “Youtubers: ideia berriak edo betiko estereotipoak?” tailerra, Gaztegunean, 18:00etan; **martxoak 17:** Gaztelekuan, 19:00etan.

–**Martxoak 8:** “Berdintasunaren aldeko lorea” tailerra, ludotekan, 17:30ean; kontzentrazioa, plazan, 19:00etan.

–**Martxoak 10:** *Ni te mueras ni te embarques*, Ausartak antzerki taldearekin, Kultur Aretoan, 20:00etan.

–**Martxoak 11:** Mendi irteera, Aloña mendira, plazatik, 08:30ean. Lezamako Gailur Mendi taldeak antolatua.

ZAMUDIO


–**Martxoak 8:** *Mujeres con historia y boleros* antzerkia eta luntxa, Zamudiotorren, 19:30ean.

–**Martxoak 10:** “Berdintasunaren aldeko lorea” (5-8 urte) eta “Erantzunkidetasunaren aldeko imanak”

(9-12 urte). Tailerrak, Ludotekan, 18:00etan.

–**Martxoak 11:** Marchinlilac kanpaina. Udal liburutegian. Lilazko martia, emakume idazleak eta Neska-mutil abenturazaleak lehiaketak eta Emakumezkoak=kontatzen umeentzako ipuin saioa (3 urtetik gorako emakumeentzat). 11:30ean, euskaraz.

–**Martxoak 17:** “Youtubers. Ideia berriak edo betiko estereotipoak?” tailerra, Gazte Estazioan, 19:00etan.



LOIU

–**Martxoak 10:** Emakumeen bazkaria (Loiu Hotelean). Ostean “Emakumeak munduan”, karaokea eta Zine Forum-a, Gaztegunean.

LARRABETZU

–**Martxoak 5:** Women in black, 14:00etan, plazan; *Zazpiak oihal batetik* ikuskizuna, 18:00etan, Angulerin.

–**Martxoak 8:** Bizkargi dantza taldea eta Txokoan taldeko erakustaldia, frontoian, 18:30ean; Kontzentrazioa, plazan, 19:30ean.

SONDIKA

–**Martxoak 8:** *Nik lagunduko dizut* bideoa eta berdintasunaren aldeko kartelak itsastea, Txorierri etorbidean.

DERIO

–**Martxoaren 1etik 31ra:** Emakume eta komunikazioa. EMAKU erakusketa.

–**Martxoak 5:** Derio berdintasunaren alde martxan (III. edizioa), frontoian, 11:00etan.

–**Martxoak 7:** *Después de doscientos años de feminismo, ¿la igualdad era esto?*, Garbiñe Mendizabalek eskaintako hitzaldia, 17:00etan. Sutondoan elkarteak antolatua.

–**Martxoak 8:** *Las revistas especializadas en igualdad. El caso de EMAKU* Hitzaldia, Kultur Birikan, 19:00etan.

–**Martxoak 9:** *Las mujeres de verdad tienen curvas*, Bideo Forum-a, 17:00etan.

–**Martxoak 10:** “Youtubers. Ideia berriak edo betiko estereotipoak?” tailerra, 18:30ean.

Osasunaren aldeko martxa

Txorierriko Mankomunitateak Osasunaren aldeko Karrera-martxa antolatuko du apirilaren 2an. Ibilbide bi egongo dira: batetik, sei kilometroko martxa, goizeko 10:00etan hasiko dena; eta bestetik, berderatzi kilometroko lasterketa, 11:00etan hasiko dena. Bien abiapuntua Zamudioko futbol zelaia izango da eta helmuga, Derioko udal kiroldegia. 09:00etatik aurrera, Deriotik Zamudiora joateko autobusa jarriko da (Kiroldegiaren aparkalekuan). Lasterketa eta martxa bukatutako-

an, horrek behar beste bidaia egingo ditu Zamudiora. Korrikalariek kiroldegiko dutxak erabili ahal izango dituzte.

Martxan zein lasterketan izena ematea erraza da: fitxa bat bete behar da Loiu, Larrabetzu, Sondika eta Lezamako liburutegietan, Zamudioko Udaletxean, eta Mankomunitatean bertan (94 454 03 50). Era berean, Mankomunitatearen webgunean deskargatzeko aukera ere badago (www.e-txorierri.com). Ordainagiria eta fitxa aurreko lekuetan utzi ahal dira; bes-

tela, emailaz bidali ahal dira helbide honetara: ekt@txorierri.eu. Izena emateko epea martxoaren 6tik 24ra bitartean luza-tuko da.

Epe barruan izena ematen dutenei motxila bana oparituko zaie (guztira, mila motxila). Halaber, lasterketaren zenbakiak lasterketa egunean bertan banatuko dira. Helduek bost euro ordainduko dute eta 14 urte baino gutxiago dutenek, hiru euro. Batzen den dirua osasun arazoak dituzten umeekin lan egiten duten elkartei banatuko zaie: batetik, Gure Señeak elkarteari eta, bestetik, GBGE-ri errefuxiatuei botikak, janaria eta arropa helarazteko.

Sondika

Martxoak 3, barikua

- 16:00: Txupinazoa, jaien hasiera: mozorro gaia: munduko lurraldeak.
- 18:00: Umeen kalejireia, eskolatik herrira sardina eta buruhandiakaz.
- 18:30: Xaibor, umeentzat.
- 19:30: Txanpi-poteoa, txosnetan.
- 23:30: Kontzertua: Ken Zazpi.
- 02:00: Trikizio erromeria.
- 04:30: DJ Animatzailea.

Martxoak 4, zapatua

- 11:00: Umeen parkea.
- 12:00: Xigorki lehiaketeta / Kalejireia txistulari eta fanfarreagaz.
- 16:00: Nagusientzako kafea, Nagusien Etxean.
- 17:00: Umeentzako magia-jolasak.
- 18:00: Umeen mozorro desfilea.
- 19:00: Fanfarrea, herritik.
- 19:30: Umeen mozorro, xigorki eta erakusleio lehiaketearen sari-banaketeta / Marrazkien sari-banaketeta.
- 19:30: Txokolatadea.
- 20:30: Kalejireia, Hortzmuga taldea.
- 21:30: Sardinaren hiletea.
- 23:00: Kontzertua: Hardcore.exe.
- 00:00: Erromeria: Garilak 26.
- 01:30: Mozorro sarien banaketeta.
- 02:00: Erromeria: Garilak 26.
- 04:00: DJ animatzailea.

Larrabetzu

Otsailak 24, barikua

- 17:00: Umeentzako Karaokea.
- 18:00: Txokolatada, Guraso elkar-teak antolatuta.
- 18:30: Zumba Saioa, frontoian.
- 20:00: PlayBack erakustaldia.
- 20:30-21:00: Elektrotzaranga, Hori Baik proposatuta.

Lezama

Otsailak 25, zapatua

- 19:00: Lezamako artista-mozorroren lehiaketeta, Leire Olarangaz.
- 20:30: Areto-dantzak.
- 21:30: Afaria.
- 22:30: Sari banaketeta eta animazioa, Leire Olarangaz.
- 23:30: Diskofesta: Disko Arima Eroa, Leire Olanan eta DJagaz.

Inauterien eztanda

Lehenengo astean (otsailaren 24 eta 25ean), Loiu, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzukoak izango dira. Bigarren astean, martxoaren 3 eta 4an, Sondikakoak izango dira: tradizioz haraneko jendetsuenak eta jarduera gehien eskainiko dituztenak.



Loiu

Otsailak 24, barikua

- 18:00: Desfilea.
- 18:30: Animazioa.
- 19:30: Txokolatadea eta sariak.
- 22:00: Luncha eta DJ saioa.
- 00:00: Sari banaketeta.

Derio

Otsailak 25, zapatua

- 18:00: Jaitsiera elizatik. Animazioa Fiebre de Sábado Noche taldeagaz. Bukatzean, mozorro lehiaketearako izen-emo-teak, Sollube kalean. DJ Unai Goikolearen animazioa.
- 19:45: Desfilea eta sarien banaketeta.

Zamudio

Otsailak 24, barikua

- 18:00: Disko festa, Udal ludotekan. Umeak mozzoratuta joango dira.
- 19:00: Gazte Estazioa atonduko da.

Otsailak 25, zapatua

- 11:30: Mozorro tailerra, Udal liburutegian.
- 18:00: Tostada lehiaketeta, Adintzuen etxean.
- 18:30: Tostada lehiaketako sari-banaketeta eta erromeria egingo da.
- 19:00: Gynkana pirata eta Disko-Pirafest.
- Otsailak 26, domeka**
- 12:00: Umeentzako erromeria eta mozorro lehiaketeta.

Historia lurretik berbizten danean

2016ko urtarrilaren 16an, Euskal Prospekzio Taldeko teknikari bik Urkulumendin prospekzio-lanak egiten ari ziralarik, 1937ko gudari baten gorpua topau eben, Eusko Jaurlaritzako burdinezko belarria, txapa eta Mauser fusilaren kartutxo bigaz. Urtebete geroago, gorpua atarateko lanak egin ziran 2017ko otsailaren 4an, eta ikerketa lanei esker gorpua identifikatea lortu da. Momentu batez 80 urte atzera bota doguz, guda garaiko Larrabetzura.

t: Jon Goikouria Larrabeiti

1937ko ekainaren 11. Nazionalak Burdinezko Gerrikoa deuseztatzeko aurretiko erasoak egiten ari dira Atxa kotan, Urkulumendiko zonaldean. Urkulumendiko tontorrean Prieto eta UGT 2 batailoiak dagoz. Eguneko lehen orduetan eraso bi izan dira: lehena iparraldetik etorri da, oharkabekoa, desnibela dala-ta. Bigarrena, Bizkargitik heldu da. Hasikeran, Nafarroko I Brigadako tropa matxinaduak, Amerika Batailoia izena daukienak, 368. kota hartu dabe, bertan egoan UGT 4 posiziotik kenduz.

Bitartean, UGT bi batailoiak aurrez aurreko erasoari zortzi orduz eutsi deutso, Urkulumendi tontorrean. Erasoan Tercio Montejurra, Falangeko 2º Bandera eta Nafarroako I Brigadek hartu dabe parte. Guztira 115 hildako izan dira. Arerioek 200 hildako eta 50 atxilotu hartu dabez. Guzti hori gertatzen zan momentuan, Gaztelumendiko Gerrikoko posizinoek eta Lezama-Larrabetzuko bideak hegazkin eta artilleriaren erasoak jasaten ari ziran. Egun batzuk lehenago, gudariak fusilen tiroakaz August Wilmsen pilotu alemaniarraren Heinkel 123 bonbaketaria lurrera bota eben. Pilotu frankistari eginiko omenaldiaren plaka Larrabetzutik Goikolexearako bidebazerrean topau leiteke.

Guda garaian, gaua zan kontraerasoari ekiteko momenturik aproposena, momentu horretan hegazkinek ez ebelako erasorik egiten. Hori dala-ta, Urkulumendiko posizionora barrero hartuteko saiakerea egin zan Carmelo Domenech-en XII. Euskal Brigadaren aldetik. Bertan, Abellaneda (PNV), Celta (CNT) eta Sacco Wanzetti (CNT) batailoiak izan ziran. Horreek, ganera, Domenech-ek II Asturiar Brigadaren laguntza izan eben. Saco Wanzetti batailoiak eskuinetik eraso egin arren, ezinezkoa izan zan arerioaren posizinoa hartutea, guztiz armatuta egoa-



Identifikazio txapa.



a: Iskander Barrena Zubiaur eta Karraderan alkartea

lako. Erdigunetik, Abellaneda gailurrera heldu zan, baina hildako kopuru izugarriak zirala-ta, erretirau behar izan zan. Asturiarrek ezkeraldetik eraso eben, baina ezin izan eben menperatu.

Guda-zelaian sarraskiaren lekukoa izan zan Gómez Aparicio kazetaria: "...Barrero Urkulu. Gailurrak milizianoez beterik dagoz. Euren bizia emon deusie abentura zoro honi. Landa armaz beteta dago eta gailurrean sei metrailadore ikusi dodaz", horrelaxe definitu eban kazetariak bertan bizi izandako egoera. "Pinudi berdeen sakanean gorpu piloa uzteltzen egoan. Guztira 200 hildako zenbatu ziran eraso hartan".

80 urte geroago, 2016ko urtarrilaren 16an, Euskal Prospekzio taldeko Alberto J. Sampedro teknikariak eta Sergio Mondina Núñez detektoristak gizon baten gorpukia topatu eben, errutina-lanak egiten ari ziran bitartean. Ez da lehen aldia

Gorpuaren aurkikuntza egin ostean, lokalizazioa, finkapena, objektuen batze-lanak eta zonaldea bera babesten da

Euskal Prospekzio taldeak errutina lanetan era honetako aurkikuntzak egiten dauezala. Kasu horreetan, protokolo berezia dabe: aurkikuntza egin ostean, lokalizazioa, finkapena, objektuen batze-lanak (inoz hazurrak, hori forentseari jagoko-ta) eta zonaldea bera babes-tea. Ondoren, aurkikuntzaren aurretiko txostena idazten da.

Jarraian, Aranzadi zientzia elkartearekin kontaktuan jartzen dira. Aranzadi elkarteak zonaldea erregistratzeko eskaera egiten dau, ahal bezain pronto gorpua lurpetik atera eta identifikatzeko. Ganera, hildako gehiago topatu leitekez inguruetan. Tentuz ibili behar da.

Historiarentzat bizi

Euskal Prospekzio aldeak Gerra Zibileko ikerketan, katalogazioan eta dibulgazioan lan egiten dau. Partehartze aktiboa dauka gerrako burrukalari galduen lokalizazioan eta identifikazioan, Euskal Herri osoan zehar, Bizkaian bereziki. Ganera, trintxera eta bunkerren posizino eta defentsa elementuen katalogazioa landuten dabe. Dagoaneko, Lemoa, Otxandio eta Zornotzako Udalekin eta hainbat alkarteekin alkarlanean aritu dira eta Berangoko Burdinezko Gerrikoaren Museo Memorialean eta Elgetako Interpretazio zentroan be aritu dira.

Gaur egun, Gerra zibilaren 80. urteurrena ospatuteko, Udal eta alkartei zuzenduriko erakusketea ibiltaria prestaten ari dira Euskal Prospekziokoek. Erakusketa horreek gerrako materialak daukiez: armak, bombak, uniformeak, balak, identifikazio plakak... ikusiko diran hainbat objektu alkarteak berak eskuz erabarrituak izan dira.

"Hilobien eta guda garaian desagertutako pertsonen lokalizazioan edonori laguntzeko prest gagoz", adierazi dabe historiarentzat lan egiten duben bolondresak.

Partehartze aktiboa dauka gerrako burrukalari galduen lokalizazioan eta identifikazioan, Euskal Herri osoan zehar



a: Iskander Barrena Zubiaur eta Karraderan alkartea



#erronkarakoprest



Jon Arrizabalaga
Gernika. Lidergo Ekintzalea eta Berrikuntza, 3. maila

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA GOIERRI - MARTXOAK 4 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA ESKORIALTZA - APIRILAK 6 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia
ORONA IDEO - MARTXOAK 11 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia	ARETXABAETA - APIRILAK 6 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia
ARRASATE - APIRILAK 27 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia	GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA BIDASOA - MARTXOAK 4 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia	DONOSTIA - MARTXOAK 18 LARUNBATA, 10:30 / Auditorium
BILBAO - MARTXOAK 9 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia	
OÑATI - MARTXOAK 11 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia	

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest 902 110 436



Etxetik urrun hiltzen direnen ahotsak

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Soilik hegazkinek hausten dute Britainiar hilerriko hildakoen isiltasuna. Sondika eta Larrondo artean, badago kanposantu txiki bat. Kanpoaldean, bi solairuko etxea dago. Atzean, burnizko atea itxita daude, jabetza pribatua adierazten duten seinaleek ibiltariak kanpoan uzten dituzte. Ez dago inor bertan.

"Azken hildakoa duela urtebete lurperatu zen". 66 urteko Félix Velasco Carrerak ondo ezagutzen du hilerria. Esparru honetan aditua, hilerraren nondik norakoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu bolondresak. "1770etik 1929ra bitartean, hilerrri hau Bilboko portuan bertan zegoen kokatuta, Abandoibarrako Inglese Kanpan, Nerbioi ibaiaren pare-parean. Garai hartan Zazpi Zuhaitzen Irla deitzen zen". Hasiera batean XVIII. mendeko bigarren erdialdeko Britainia Handiko hiritarrentzat eraiki zen. 1859an, Horace Young izeneko britainiar Kontsulak hilerrriaren egoera tamalgarria zela ikusi

BRITAINIAR HILERRIA

Txorierriko hilerrri guztien artean, ezohikoena da Britainiarren kanposantua. Loiuko Britainiar hilerria 1929ko martiatzetik dago gure haranean, eta jende gutxi ezagutzen du bere hormek gordetzen duten historia eta istorioa. Antzina, Bilboko Inglese Kanpan egondako *Zazpi Zuhaitzen Irla* izan zen. Gaur, isiltasuna eta bakardadea da nagusi bertan.

zuen, hildakoen senideak gutxi izanik hilerrriaren gastuei ezin zietelako aurre egin. "1900ean, higiene arazoak egoten hasi ziren, eta gainera Bilboko portuko autoritateak lursailak bereganatu nahi zituzten", argitu du Velascok.

1926an akordio batera iritsi zen: hainbat proposamen kontuan izan eta gero, hilerria Loiura eramatea erabaki zen. Horretarako 10.000 metro karratuko lursaila erabili zen. Kapera bi ezarri ziren bertan: katoliko-erromatarra eta protes-

tantea. Horrez gain, kanposantuaren sarreran etxe bat eraiki zen, zaindaria eta bere familiarentzat eta autopsiak egiteko eraikin txiki bat. Lau hilabete eman zituzten Bilboko hildako guztiak Loiura eramaten, eta denbora tarte horretan, hilerriko arduradunek hilobiratze erabilerak britainiar komunitateko katoliko-erromatarrei zabaltzea erabaki zuten.

Burnizko atea gurutzatzean, eukalipito, mimosa, palmera, pinuak eta askotariko zuhaitzen basoan murgiltzen gara.

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKILETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungiantze etorbidea, 25
48160 DERIO

 **EGUNEKO MENUA**

lehenengo platera
bigarren platera
potroa
ogia
edaria

9€

Bestorene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Commonwealtheko hildako gehienak Espainiako ipar-mendebaldetik ekarri zituzten

Hilobiak edonon ikus daitezke, bakoitza materiale eta forma propiokoak. Asko bertan behera utzita daude. Ezkerraldera joz kapera katoliko-erromatarra dago, gaur egun inprobisatutako museo bihurtua eta antzinako galera baten bandera britainiar erraldioarekin, erretaulan. Dokumentu, liburu eta argazki historiko ugari ikus daitezke bertan. Hasierako bidera itzuli eta eskumara jotzen bada, kapera protestantero heltzen gara, gaur egun bai katolikoak eta baita protestanteak erabiltzen dutena. Leiho batzuk gardenak dira, eta beste batzuk beirateak dira: "Ez dira kaperak hornitzeko, hilobien funtzioa betetzen dute: badira pertsonak hilobiak ordaindu beharrean hildakoak beirateekin omentzen dituztenak", argitu du Felixek.

Kanposantuko bihotzean, ondo baino hobeto bereizturik, Commonwealtho Bigarren Mundu Gerrako hildakoen lursaila dago: "Belarrak luzeera zehatza du eta hilobien arteko distantzia berdin-berdina da", adierazi du adituak. Ez da hierarkiaren bereizketarik egiten: soldaduak, kapitainak, sargentoak... Guztira 56 gorpu daude bertan, eta ez bakarrik britainiarrak: alemaniarak, amerikarrak, espainiarrak, frantsesak, grekoak, irlandarrak, norvegiarrak, suediarak, suitzarrak... ere badaude. Hildako gehienak Espainiako ipar-mendebaldeko britainiar hilerrietatik ekarri zituzte, zentralizatzearen: "Hilerrri hauek mantentzea oso garestia da. Estatu mailan hiru daude soilik gaur egun: Málaga, Madril eta Loiu", azaldu du. Gainera,

Lehen Mundu Gerrako zazpi hildako ere badaude.


Gaur egun, hilerria hilobiratze gastuengatik, zenbait inbertsioengatik eta donazio pribatuengatik mantentzen da, eta Kontsul-general britainiarra Britainiar Hilerriko komitearen presidente estroafizial bezala aritzen da.

Heriotzaz bizi

Zegoen bizitza arrasto bakarra duela 11 urte ezabatu zen, José Pañero Barco-rena. Bera izan zen hilerriko kanpoaldean dagoen etxean, familiarekin batera bizi izan zen kanposantuko zaindaria. 26 urteko zerbitzua eman ostean hil zen, 57 urte zituelarik. Denbora tarte horretan, José kanposantuaren mantentze lanak egin zituen, eta Susanak (emazteak) larunbatero komunitate britainiarreko hainbat kideri gaztelaniazko klaseak ematen zizkien, debalde.

Errekonozimendu bezala, Hilerrri Britainiarraren Komiteak toki bat eskaini zion Joséri, kapera katolikoaren ezkerraldean. Berea hilerriko umilena da: ez dago hilarriarik, zuhaitz txikia baizik. Familiak, José hil eta denbora gutxira etxea utzi zuen.

Gaur egun isiltasuna baino ez dago Loiuiko Britainiarraren Hilerrian. Soilik urte-



an bi aldiz hurbiltzen dira britainiarrak bertara: *Remembrance* edo Oroimenaren Egunean (azaroaren 11n, 11:00etan) eta abenduaren erdialdean, gabon kantak kantatzeko. Joan den urtean Europar Ondare Jardunaldiak egin ziren bertan, eta hilerria bisitatzeko aukera izan zen. "Espero dugu etorkizunean herritarrei Britainiarraren Hilerria nolakoa den erakustea, horretarako bisita gidatuak eskainiz", bukatu du burdinezko ateei giltza botaz.



Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

R P A
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel.: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lafendakari Letzabala plaza, 1
48170 Zamudio
94 452 14 49

Taberna Ibiltariaren azkenaurrekoa

t: Gaizka Eguzkitza

Orain dala urte bi, Taberna Ibiltaria taldeko lagunak egun batzuk pasau ebezan Zamudioko txoko baten, kanta batzuk grabatzeko asmoagaz. Harrezkero, euren lehenengo diskoa eroan eben kalera. "Behar genduazan baino kanta gehiago grabau genduazan", azaldu deusku Alfon Atela kideak. Orain, bigarren beharra plazaratzea erabagi dabe, *Taberna 12ltaria*. Taldekideek helburu berari eutsi deutsoe: kantatzen daben bitartean ondo pasatzea eta euskal kantutegia, betikoa, zabaltzea.

Diskoren izenburuak hitz-jokua egiten dau, taldeko bigarren diskoa dala adierazoteko. Ganera, beste omenaldi bat egiten deutsoe Txetxu Arrillagari, orain dala urte batzuk hil zan taldekideari. "Lehenengo diskoa berari eskini geuntsan. Eta azken diskoaren aurreko orrialdearen argazkia Zumetxagako San Migelen -Bakio eta Mungiaren artean- atara dogu. Leku esanguratsua da, batetik, San Miguel Egunean, Txetxuk paellatxo bat han egiten ebalako; eta bestetik, Txetxu hil zanean, leku horretan landatu gendualako haretx bat. Tabernamobila be agertzen da azalean eta horrek islatzen dau taldea; lekuak eta haretxak, Txetxu".

"Lehenengo diskoak espero genduan baino arrakasta haundiagoa lortu eban. Hasikera batean, 500 aleko edizinoa atara



genduan, lagunen eta senideen artean banatzeko batez be. Baina Boiseko euskal jaialdira joan ginan eta bertan asko saldu genduazan eta, gainera, eskaera pilo bat jaso genduan. Esate baterako, Estatu Batuetako zaletu batek interes handia adierazo eban, diskoa erabat agortuta egon arren, eta azkenean disko bat bidali behar izan geuntsan postaz. Ez dakit kobrau geuntsan ala ez be (kar, kar)".

Azkenean, 2.000 ale plazaratu ebezan, bigarren diskoagaz egingo daben moduan. Banaketea be antzekoa izango da. "Ahoz-ahoz eta eskutik eskura. Diskoa eskuratu gura dauenak eskatu ahal deustso taldekideren bati; edo Facebooken

Diskoaren azalean, Txetxu Arrillagari -orain dala urte batzuk hil zan taldekideari- egin deutsoe omenaldia

bidez jarri ahal dau hartu-emonetan gu gaz". Disko bakotzak 10 euro balio dau, eta bildutako diruagaz gastuak betetzea espero dau taldeak.

Guztira 12 kantek, betikoeak, osatzen dabe diskoa: *Bagare, Eskola (Agure Zaha-*

Talde aitzindaria

Taberna Ibiltariak 17 urte beteko dauz martxoan. Hutsune bat betetzeko sortu eben taldea. "Garai baten ez zan tabernetan hainbeste abesten. Egun baten, Bilboko Alde Zaharrean jentea gure atzetik hasi zan kantatzen. Eta guk gitarra bat besterik ez geunkan!". Handik aurrera, tabernetan kantatzeko ohitua berpiztu egin da eta Taberna Ibiltaria bezalako talde gehiago sortu dira. Txorierritarrak aitzindariak izan dira. "Gure atzetik, herri askotan topau ahal dozuz betiko kantak jorratzen dabezan taldeak: Sestao kantuz, Bilbo kantari... Eta eurei esker,

gaur egun asteburu guztietan betiko kantek gozatzeko aukerea dagoala esango neuke. Leku baten ez bada, bestean", dino Alfonek.

Taberna Ibiltaria talde arrakastatsua da. "Gure arazoa da leku guztietara ezin garala heldu. Batzuetan hiruzpalau eskari jasotzen doguz asteburu baterako eta ezetz esan behar dogu. Hau komeria! Txantxetan hau esaten dogu: Bakarrik ezin dogu Euskal Herria salbatu. Besteek lagundu beharko deuskue (kar, kar). Eta horretan dabilz, zorionez, gero eta talde gehiago sortzen diralako".

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



Diskoa lortzeko, taldekiren bati eskatu edo Facebooken bidez hartu-emonetan jarri taldeagaz

rra), Greziako itsasontzia, Txalaparta, Lili bat, Loretxoa/O Bella Ciao, Gure lekukotasuna, Azken agurraren negarra, Eperrak, Udaberria, Xalbadorren heriotzean eta Guk euskaraz. Azken diskoan, zor antzeko bat ordaindu dabe Errobi taldeagaz. "Bere

kantaren bat faltan bota genduan lehenengo diskoan, gure gaztetan oso talde garrantzitsua izan zalako". Gaur egun kanta barriago batzuk be osatzen dabe euren errepertorioa –Berri txarrak, Ken Zazpi, Mikel Urdangarin...– eta horri esker, gero eta gazte gehiago dira Taberna Ibiltaria taldeko zaletuak. "Ziur asko kanta horreek be betikoak izango dira inoz".

Giro ederra

Guztira, 25 kidek osatzen dabe Taberna Ibiltaria taldea. Halanda be, giro zoragarria dago euren artean. "Taldea ia gura barik sortu genduan, eta agian horregaitik ikaragarria da gure arteko hartu-



emona. Taldea osatzeko kasting bat egin izan bagendu, ez geunkean hain talde atsegina izatea eta hain giro polita egotea lortuko. Hartu-emona hain da ona, ezen erabagiak beti aho batez hartzen doguzan".

Bigarren diskoa labetik atara barri euki arren, hirugarrena eta laugarrena be badabez buruan. "Batu gura dogu barriro, kanta gehiago grabatzeko. Baten batek planteatu dau geure kanta propioak egitea eta ideia aztertzen gabilz". Etorkizunearan etorriko diran disko horreetan, Alfonek argi dauka kanta zehatz batzuk sartuko dabezalako. "Oskorri omendu gura dogu, talde horrek izugarritzko lana egin dauelako euskal kantutegiaren alde. Era berean, Fermin Valencia be kontuan euki gura dogu. Fermin gaz oso hartu-emon ona daukagu eta gurako geunke bere kantaren bat sartzeaz ganera, berak be kantatzea. Fermin ez dauka berak grabatutako diskorik, oso kanta politak euki arren". Taberna Ibiltaria taldeak azkenurtekoa ordaindu dau...

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

elekma
LARRATZAREN BAT DUTEN ETATRETSINA ELEKTRIKO BERRAM
TELEBISTAK ETA ETATRETSINA ELEKTRIKO TUKAM

lehenengo markak • Pizsariak onerak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Taldirari erabadea, 25-3 N • 48180 Ibañeta
T: 944 539 232
www.ekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Lauriola elorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitik.com

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Telebista piztuta dago eta kate turkiar baten bideoklipak emititzen ari dira. Sondikako gazte batzuk sofán botata daude kebab batzuk eta patata frijituak jaten. Ostirala da. Barraren bestaldean Ahtisman-Saif eta Shahid Igbal daude, urduz hitz egiten. Jaieguna da gazteentzat; 12 orduko jardunaldia, Pakistango lagunentzat.

2005ean heldu zen Shahid Igbal Sondikara, 20 urtekin. Ikasketak bukatu ostean, Pakistanetik Madrilera hegan egin zuen. Bertan kebab jatetxea ireki zuen Ahtisman-Saif lagunarekin batera: "Madrilen izugarriko inpaktua izan zuen kebab-en fenomenoak. Denbora gutxian denda asko zabaldu ziren", azaldu du ostalariak. Hori dela eta, maletak egin eta nora eta Txorierrira etorri ziren lagun biak. Jatetxe exotikoa txikiteroen Atxa taberna izandakoan muntatu zuten.

"Bertan ez zegoen Pakistan inguruko janaria eskaintzen zuen inolako jatetxerik", argitu du Shahidek. "Lehen urtea sekulakoa izan zen", azaldu du. "Hala ere, urteak igaro ahala salmenta kopurua baretu egin da eta urte hasieran ez ditugu hainbeste saltzen: gaur egun 800 produktu inguru saltzen ditugu hilero", kalkulatu du. "Bezero nagusiak 15-27 urte inguruko gazteak dira, batez ere asteburuetan", adierazi dute lan-kideek.

Hamaika urte bueltaka, gure artean

Milurte berriak aldaketa ugari ekarri zituen. Horietako bat Kebab jatetxeen *booma* izan zen. Lehen kontaktua Madril eta Bartzelonan izan zen, eta sekulako inpaktua izan zuen gastronomian. Txorierrin hamarkada bat daramate Döner Kebab jatetxeek, eta gazte askoren egunsentiak poztu dituzte. Sondikan Shahid Igbal eta Ahtisman-Saif ostalariak horrelako bat ireki zuten duela 11 urte.

Kebab edo Kebap-a (turkiarrez azken hau) antzinako jakia da eta parrilako haragia esan nahi du: errege pertsiarren janaria zen, eta iraniarrek urtean behin jaten zuten, Nowrooz-ean, Persiako urte berriari. Errezeta zaharrena X. mendeko *Kitab al-Tableekh*, Ibn Sayyar al-Warraq-en sukaldaritzan liburuan agertzen da, zeinek kebab-a ogian jarritako adobatutako okela bezala definitzen zuen. Jaki honek Iran eta Turkian du jatorria.

Bi kebab mota bereiz daitezke gaur egun: alde batetik, iraneko Shish Kebab-a. Kebab tradizionala da, eta metalezko makil batean zerbitzatu ohi da, haragi edo

arrain zatiekin (barazkiak izan edo ez). Burruntsi-pintxoan antzera, parrila batean erre ohi da. Barazkiak jartzekotan, berenjena, tomatea, piperminak, azenarioak eta barrigorriak izan ohi dituzte. Bestalde, Döner Kebab-a dago. *Döner*-ek bueltak ematen dituena esan nahi du eta edonon topa dezakegun jatetxe horietan zerbitzatu dira. Dönerrak Estambuletik Berlinen Kreuzeberg auzora iritsi ziren duela hamarkada bat, Kadir Nurman izeneko turkiar etorkin batek bertako langileei janari arin bat ematearren. Dönerrak marinaturiko bildots edo oilasko xafak dira, tornu bertikalean bueltak emanez erretzen dire-

*Gaur egun oliasko,
txahal, ahuntz
eta arrainezkoak
ere topa daitezke
zenbait jatetxeetan*

nak. Gaur egun, Alemaniako *fast food* salduena da.

Tradizioaren arabera, kebab-ak bildots haragiarenak dira, baina mendebaldeko kulturara hobeto doitzearren, gaur egun oliasko, txahal, ahuntz eta arrainezkoak ere topa daitezke zenbait jatetxeetan, eta horri Lahmacun, Dürüm, pizzak, Pedratak eta bestelako eskaintzak gehitu behar zaizkie.

Errealitatea, zenbakitan

Kebab-a berez janari osoa da: ogia (ze-realak), barazkiak (tipula, tomatea, letxuga...), esnekiak (yogurt saltsa), olio... etab. Hala ere, Persiako erregeek urtean behin egiten zuten bazkaria bazen, arrazoi batengatik izango zen: bokata formatuan, bildotsezko kebab batek 400 kaloria izan ditzake; 500, platerean bada. Oilaskoaren kasuan, bokata formatukoa 300 kaloria inguru dauzka, eta 400 platerean bada. Horri pita ogia, entsalada, saltsak eta patatak gehitu beharko litzaizkioke. Pizza arrunt batek baino kaloria gehiago dauka: ez dira 1.000 kaloriatik jaisten. Shahid eta Ahtishamen kasuan, bildots eta oilasko kebab biribilkiak Bilbon biltegia duen Alemaniako enpresa bati erosten dizkiete, eta barazki freskoak, Bilbon bertan.

Negozio pakistandarrek askotan fama txarra izan ohi dute, batez ere osagarrien jatorriari eta garbitasunari dagokienez. Negozio batzuk, animalien izterrek eta kontraizterrek erabili beharrean (egin beharko litzatekeena) erraiak eta bestelakoak erabiltzen dituzte, produktuaren kalitatea zakartuz; hori ez da Shahid eta Ahtishamen kasua.

Lagun pakistandarrak Sondikan bertan bizi dira eta Euskal Herriko janaria gustukoa izan arren, ezin dira janari pikanterik gabe bizi: "Ezin dezakegu gastronomia pikanterik gabe imajinatu", adierazi du Ahtisham-ek. Noiz behinka kebab-ak jan arren, nahiago dute *Chapattia* edo pizza turkiarra.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



ZINEA
TERESA ETA GALTZAGORRI
70' AG (2D)
Martxoak 5, 17:00 (EUSKARAZ)



LO QUE LA VERDAD IMPORTA
108' AG (2D)
Martxoak 5, 19:30



LA VIDA DE CALABACÍN
66' AG (2D)
Martxoak 12, 17:00



ES POR TU BIEN
93' EG-12 (2D)
Martxoak 12, 19:30



LEGO BATMAN, LA PELÍCULA
104' AG (2D)
Martxoak 19, 17:00 (EUSKARAZ)



MANCHESTER FRENTE AL MAR
138' EG-12 (2D)
Martxoak 19, 19:30



SIETE VIDAS, ESTE GATO ES UN PELIGRO
87' AG (2D)
Martxoak 26, 17:00

LA CIUDAD DE LAS ESTRELLAS (LA, LA, LAND)
129' AG (2D)
Martxoak 26, 19:30





2D: 4 € 3D: 6 € *oharra: produktorearen behar-tzamen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake




Baliabideak partekatzeko plataformak

t: Zuriñe Aboitiz

Gogoratzen duzu duela gutxi arte aldizkari orriak mozten genituela gus-tatzen zitzaizkigun gauza guztiak batera edukitzeko? Karpeten banatzaileetan itsatsita, adibidez, edo sukaldeko erreze-ta liburu zahar horren orrien artean. Txu-kunagoa zenak, beharbada, plastikoetan sartuta izango zituen, dena ondo ordena-tuta.

Gaur egun, artikuluak Interneten daude, aldizkariak tabletetan irakurtzen ditugu eta argazkiak Google-n bilatzen ditugu. Baina gauzak ez dira hainbeste aldatu, dena era berean egiten jarraitzen dugu: gustatzen zaizkigun horiek gorde eta gureak egiten ditugu, nahi dugunean begiratu ahal izateko. Hori dela eta, Interneten sortu dira baliabideak eta gusta-tzen zaizkigun gauzak gordetzeko eta partekatzeko plataformak.

Oraingoan, plataforma bi erakutsiko dizkizuegu: lehenengoa oso ospetsua eta bigarrena, sortu berria.

Pinterest-en ez badago, ez dago

2008an sortu zen, hau da, orain dela 11 urte, eta dagoeneko jende askok ez du Internet imajinatzen Pinterest barik. Sor-tzaileek "ideien katalogo nagusia" dela esaten dute, eta ez dabilta batere oker. Erabilera oso erraza da. Demagun urtebe-tetze opari berezi bat egin nahi duzula, zeure kabuz. Aukera bi daukazu: edo Google-n bilatu eta hainbat orritan sartu edo Pinterest-en bilatzailean hitz gakoak jarri eta era bisual batean beste erabil-tzaileek gordetako irudi guztiak ikusi, eta gehien gustatzen zaizuna aurkitzen du-zunean, sakatu.

Ideiak gehiegi badira eta hurrengo baterako gorde nahi badituzu egin behar duzun bakarra panel bat sortzea eta ber-



Guztionean osatzen dugu Klikasi
Edukiak partekatu, zabaldu eta ikasi



tara igotzea da. Beste webgune batzue-tan aurkitzen dituzun argazki eta artiku-luekin gauza bera egin dezakezu. Horrela, dena batuta izango duzu.

Pinterest-en beste erabiltzaileak ja-rraitzeko aukera ere badago eta, horrela, pertsona horrek partekatzen dituen gau-zak ikusteko aukera izango duzu. Behar-bada, beste batek emango dizu hainbes-te urtetan bilatzen ari izan zaren errezeta hura.

Euskaraz? Bai, noski

Interneten euskaraz dauden gauzak aurkitzea ez da batere erraza. Seguru aski, behin baino gehiagotan nekatu zara nabigatzailean orriak eta orriak zabal-tzen, zer edo zer interesgarri bilatu na-hian, edo umeek eskolan ikasitakoa bir-pasatzeko materialaren bila. Azkue Fun-dazioak plataforma berria kaleratu du, In-

terneten dauden euskaraz idatziriko ba-liabideak batzeko eta hedatzeko asmoa-rekin. Nahiz eta batez ere ikastetxe, ira-kasle eta ikasleei zuzenduta egon, edo-zein gauza sar daiteke, gauza berriak ikasteko edota norberak sortutako balia-bideak edo Interneten ikusitakoak igot-zeko.

Hainbat motatako errekurtso batuta aurki ditzakezu: irudiak, aurkezpenak, soinu grabaketak... Guzti-guztiak, euska-raz. Ken Zazpi taldeko Ilargia kanta uke-leleagaz jotzeko grina daukazu? Emaku-mearen partaidetza bertsolaritzan azter-tu nahi? Biokimikako oinarriak zeintzuk diren jakin nahi? Sar zaitetz eta Klikasi-k eta hainbat erabiltzailek ematen dituz-ten aukera guztiak aztertu.

www.pinterest.com

www.klikasi.eus



Gernikako arbola: euskara on, euskara off

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Aita Lhandek 1910ean esan zuenez, 100.000 euskaldun joan ziren Ameriketara, gehienak Argentinara, 1832-1907ko urte-tartean. Bertan, gero, -dio Lhandek-euskaldun frantsesa> euskaldun argentinarr > argentinarr bilakatzen da. Aldaketa horren ondorioa ulertzeko adibide argia eskaintzen digu Kepa Altonagak ikerlan bikainean:

“Buenos Aires-ko Laurak Bat elkarteak diru-bilketa egin zuen Iparragirre bertso-laria Europara itzul zedin, eta, besteak beste, kantaldia antolatu zuen. Euskaldun aberastu asko hurbildu ziren kontzertu horretara euren seme-alabekin batera. Ba, Iparragirrek ordurako euskaldunen himnoa bilakaturiko Gernikako Arbola abestu zuenean, gurusoak negar-zotinka aritu ziren deblauki, eta bien bitartean, belaunaldi gazte dotorea, euskara apenas ulertzen zuena, irribarreka hasi zen emozio horren aurrean”⁽¹⁾.

Gertaera historiko hori aintzat harturik -eta Argentinatik geure inguruko Euskal Herrira etorrira- norberak pentsatzen du, Argentinako gazte haiek ez ote dauden Txorierrin ere. Ea lehengo belaunaldikook jakin dugun euskal kontzertzia transmititzen.

Azken baten, gazteriarentzat euskara legala da, karteletan ikusten da, telebista-irratietan entzuten, eta umeez eskolan topatzen dute. Euskal kontzertzia ez da, jadanik, hain beharrezko; “Euskara jalgi hadi plazara”, Etxeparearena, merkatuan dabil.

Kontzertzia, ordea, beharrezkoa da esparru askotan ze, erdara eta euskara ez daude mugek edo harresiek banatuta; euskararen eta gaztelaren mugak geu-

gan daude, gutariko bakoitzarengan. Ondorioz, eguneko une askotan geuk ukitzen dugu interruptora, etengailua, orain on, gero off ipintzeko, orain euskara, gero erdara erabiltzeko. Noiz on eta noiz off euskal kontzertziak, euskaltzaletasunak adieraziko digu. Euskaltzaletasunik ez bada, ahoa erraz ipiniko dugu off.

(1) KEPA ALTONAGA: Etxepare Aldudeko medikua, 9. or.



HABAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagatik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^o Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gurbi-ikuziak, orokorren
Azukom konmutatuek
Mantentzeko gurbi-ikuziak
Bulegok eta lokalak
Olinja amerikako garbiketak
Lanarok
Zabur bilketa

Besaide Plaza, 1 - B^o Aldekona
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

GOXO-GOXO LOHIZUN

Arratsaldeak zabalik
Ogile egunero
Pastelak onkerguz.

Garaioitza, 77c
48196 Lazama
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraiz Facebooken

Nire Autoocasion NA

INPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 52
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Makailo eta piperradaz beteriko kuiatxoak

a: Jon Goikouria Larrabeiti

Osagarriak:

- Makailoa.
- Piper gorri eta berdea.
- Tipula bat.
- Tomate bat.
- Uruna.
- 10 piper txorizero.
- Gaileta Maria bi.
- Arrain fumeta.

Prestatzeko era:

Hasteko, bizkaitar saltsa egin behar da. Horretarako, piper txorizeroak galdarraztatu eta haragia kontu handiz alde

batera itxiko dugu, gerorako erreserbatur. Ondoren, tipula su txikian frijitu eta birrinduriko gailetak gehituko deustaguz. Jarraian, piper txorizeroen haragia eta fumeta gehituko deustagu. Birrindu guztia eta txinotik iragazi.

Kuiatxoaren betegarria prestatzeko, tipula su txikian frijitu eta piper gorri eta berdeak gehitu. Prest dagoenean, tomate bota zati txikietan. Eginda dagoanean, makailoa gehitu. Sukaldata. Loditu nahi izatekotan, uruna edo maizena gehitu ahal jako.

Kuiatxoak prestatzeko, ebagi gustura eta hustu. Kanpotik gitxi frijitu arin baten, eta sutik kendu, alde zurretik egindako betegarriarekin kuiatxoak betetzeko.

Norberaren gustura aurkeztu daiteke platera.



Ettxeko sukaldaritza

Roquefort eta intxaur quichea

t: Maite Lekerika / a: thermorecetasocina.es

Osagaiak:

- 400 gr hostorea.
- 250 gr Roquefort gaztai.
- 150 gr zenberena.
- 100 ml esnegain lodia.
- 2 arraultz.
- 60 gr intxaur txikitu.
- Pipermin eho zuri apur bat.

Prestateko era:

Hostorea eta gazta itxi kanpoan ordu pare baten. Ondoren, hostorea zabaldu labeko molde biribil baten. Egin zulo txiki batzuk labean sartu baino lehen. Gero, landu gaztai birrindua (zenberena) ontzi baten. Horretarako, kendu ura eta gehitu esnegaina ta arraultzak. Azkenik, gehitu moldera intxaur erdiak birrinduta eta sartu labean, 200 gradutan, 25-30 minutuz.

Eginda dagoanean, bero dagoala, apaindu beste intxaurrakaz, ahalik eta osoen. Bero jan behar dan platera da.




GALAISIA Etegiabako ordutegia
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

IRATXO
gazotegia
tarta personalizatuek
trusak
tortak
pastelak
pastak
Mikel Zarate, 2 - 3. lenja • Sondika, 48150 • 94 445 89 79

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 Ionja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com



Umeekin zer irakurri?

Amonatxoak

Ana Apika

Egilea: Charo Pita.


Argitaletxea: S.L. Kalandraka Editora.
Liburutegietan dago irakurgai.

Charo Pita galiziarrek idatzitako istorioak ahozko narrazioan daude oinarrituta edota kontalaritzaren klabeetan daude idatzita, behintzat. Horri esker, bere lana oso erraza da irakurtzeko edo kontatzeko. Emakumezkoa izateak ere badu garrantzia, batzuetan gizartearen emakumeak dugun garrantzia ere islatzen duelako. Egileak hainbat album ditu argitaratuta euskaraz, galegoz eta gaztelaniaz: *Oxala Etivieses aquí, Eskerrik asko, La calle del puchero, Magia, Igor, ¿Quién puede vencer al viento?*...

Baina hurrengo lerrootan *Amonatxoak* albuma hartuko dugu hizpide. Libu-

rua adin guztientzat dago zuzenduta, hau da, 0 urtetik 99 urtera bitartean kontatzekoa horietarikoa. Istorioa oso hunkigarria da. Protagonistak elkarrekin bizi diren edadeko andre bi dira: elkarrekin bazkaltzen dute, elkarrekin lo egin, elkarrekin amets egin... Txeroak, baina zoriontsuak. Egun batean abentura itzela bizi eta gero, batek arazo larria dauka eta bestearen laguntza behar du dagoen egoeratik ateratzeko.

Albumak gai orokorrak jorratu ditu: amodioa, laguntasuna, konfiantza, nagusien jakinduria, emakumezkoek "betidanik" egin dituzten lanak (josi, janaria prestatu, zaindu...)... Protagonistek dantzak eta abestiak erabiliko dituzte, maitatzen duen laguna berriro aldamenean izateko. Eta azkenean, sorpresa izugarria, naturaren zikloak eta gizakiok ditugunak lotzen direnean.



AHOLKUA

Albumak bereziak dira. Batzuetan txikiak zuzenduta daudela uste dugu eta umeak koskortzen direnean ez diegu kasu handirik egiten. Hala ere, albumak altxorrez josita daude. Bai marrazkiak, bai istorioa. Biak batera kontuan hartzen baditugu, liburu bereziak dira, adin guztietako liburuak. Adin gomendatua markatzen duen koloretako puntutxua batzuetan alde batera utzi behar dugu, albumekin berraurkitzeko, eta marrazkien murgiltzeko.

BOLALEKU
JATEETEA

10. URTERENKOA

Garaio 1 - LEZAMA
94 455 41 10

• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak

• BOLAPARK

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaio 1, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE
DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Hitzaldiak

Sondika

- > Tom Hennley sondikoztarrak *Su y el Portal Inexistente* liburua aurkeztuko du.

Derio

- > *Nola motibatu gure seme-alabak*, Juan Karlo Alonso. Martxoaren 7an, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > *Elkarbizitzarako oinarriak familian eta eskolan*, Juan Karlos Alonso. Martxoaren 21ean, 18:30ean.

Zamudio

- > Toti Martínez de Lezea, Lagunandren eskutik. Martxoaren 16an, 18:30ean, Zamudiotorren.

Lezama

- > *Mobilak, tabletak eta bideojokoak, zein adinetan?* Martxoaren 2an. 17:00etatik 18:30ak arte, eskolan.
- > *Lehen sorospen psikologikoak*. Martxoaren 9an. 17:00etatik 18:30ak arte, eskolan.
- > *Zailtasun arruntak haurtzaroen*. Martxoaren 16an. 17:00etatik 18:30ak arte, eskolan.

Larrabetzu

- > Miren Gorrotzategi: *33 Ezkil*. Literaturaz berbetan. Martxoaren 16an, 19:00etan, Angulerin.

Ikastaroak

Sondika

- > Skate ikastaroa. Bilboko Gure Txokoa, apirilaren 10, 11, 19 eta 20an. Izena Gaztetxean eman beharko da, martxoaren 16tik 26ra.

Derio

- > Txalo tailerra, musika zuzenarekin, Piperdun elkartearen eskutik. Martxoaren 12an, 11:00etan, Larrabari Baserrian.
- > Aisialdiko begirale eta kirol entrena-tzaileentzako ikastaroa. Martxoaren 1etik 14ra, Kultur Birikan.

Zamudio

- > *Erantzunkidetasunaren aldeko imanak*. 9-12 urte bitarteko umeentzat. Martxoaren 10ean, 18:00etan, Ludotekan.
- > Ariketa hipopresiboak. Martxoaren 31n, 18:00etan, Kultur Etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > Oliver magoa, helduentzat. Martxoaren 3an, 21:00etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Irakurketa saioak. Martxoaren 3an, Angulerin. Izena eman behar da.

Irteerak

Sondika

- > Baltzola-Dimako kobazuloak, Gurasoen Elkarte eta Sondikako Udalaren eskutik. Martxoaren 26an, 09:00etan.

Zamudio

- > Sagardotegira, Arroeta mendi taldearekin. Martxoaren 12an.
- > Pradejoneko Perretxikoen eta Sartagudako Memoriaren museoetara, Zizegorri elkartearen eskutik. Martxoaren 18an.

Lezama

- > Aloñako mendilerroa, Gailur Mendi taldearen eskutik. Martxoaren 11n, 08:30ean. Abiapuntua: herriko plaza.
- > Upo, Areatzatik, Gailur Mendi taldearen eskutik. Martxoaren 19an, 09:30ean.

Jaiak/ospakizunak

Zamudio

- > Lagunandre elkartearen bazkaria, Landatxuetan. Martxoaren 4an, 14:00etan.
- > Plater-tiroko saioa, Zamudio Ehiza eta Arrantza elkartearen eskutik. Martxoaren 18an, Zamudioko tiro-zelaian.

Larrabetzu

- > Emakumearen Eguna. Bazkaria Gure Etxean. Martxoaren 8an.

Kirola

Loiu

- > Larrakoetxeko idi probak 2017. Otsailak 26, 18:00etan eta otsailak 27, 21:00etan.
- > Elotxelerriko Mendi Martxa. Martxoaren 19an, 09:30ean.

Larrabetzu

- > Aste Santuko umeentzako Ibilaldiak. Martxoaren 20tik 24ra, Angulerin.

Lehiaketak

Loiu

- > Ping Pong txapelketa. Otsailaren 25ean, 19:00etan.

Sondika

- > Sondika Pintxotan. Martxoaren 10ean.

Musika

Derio

- > Asturias. Coro Marinero Manin de Lastres eta Ipar Alde Abesbatza. Martxoaren 18an, 20:00etan, San isidro elizan.

Lezama

- > Ekidazu Abesbatza, Udaberriko kontzertuak. Martxoaren 25ean.

Larrabetzu

- > Gaztelumendi abesbatzaren kontzertua. Elizan, 20:00etan.
- > Mikel Uraken. Domekak Hori Baien. Martxoaren 26an, 18:30ean.

Bestelakoak

Derio

- > Pintxo pote eta animazioa Txipli Txaplaekin. Martxoaren 11n, 19:00etan, beheko aldean.

Larrabetzu

- > *Oporrak Bakean*. Saharako umeak ekartzeko proiektuan izena emateko epea: martxoaren 1etik apirilaren 7ra.



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORRIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

INAUTERIAK

Taileri, 6 (Seminarloren atzean) DERIO 94 406 36 02

ban
BASERRIANTZOKIA

Otsailak 24, 22:30ean

EGARRI TALDEA

Ondoren, KIKO DJ-A

Otsailak 25, 22:30ean

MOZORRO GAUA

EZETZ TALDEA + KIMO DJ-A

MOZORRO LEHIAKETA

Saria: afaria (2 pertsonentzat)

Mozorrotuta datorrenari,
txupito bat doan

Otsailak 26, 11:00etan

WINSTON COPERLAND

Pailazo magoa

Ondoren MITXEL DISKOFESTA

Sarrera: 3 euro